

Elkarrizketa
politikoak

IURRETA



"URA agentziagaz sinaturiko akordioa garrantzitsua da, Paduretako urbanizazioa bermatzen duelako"

Iurreta • Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak hainbat proiekturen berri eman du: Bideondoko urbanizazio proiektua, Bidebarrietako birgaikuntza, Bizikleta Plana... Hile amaieran 2024ko aurrekontua onartzea asmo du • **2-3**



Ricardo Gutierrez Abascal omenduko dute Garain

Garai • Pilar Zubiaurren senarraren gorpuzkiak Garaiko familiaren panteoira ekarri dituzte Mexikotik. Omenaldia martitzenean izango da, 19:00etan, Garaiko udaletxean. • **11**



Haur minbiziari aurre egiteko jaialdi solidarioa Durangon

Durango • La Cuadri del Hospi elkarteagaz batera, Durango elkarteek 'Gu be zuek gara' izeneko ongintzako jaialdia antolatzeari ekin diote. Jaialdia maiatzaren 12an izango da. Egun osoko egitaraua izango du eta herriko kaleetan eta Landako Gunean gauzatuko da. • **4**

Gehigarria • A25 • 13-21



Durango • Durango Kirol Taldeko kideek Emakumeen Lasterketaren seigarren edizioa antolatu dute azaroaren 25erako. 17:00etan ibilbide testimonialela egingo dute, eta ondoren lasterketa. • **18-19**

"Emakumeen Lasterketak plan desberdin bat egiteko aukera ematen du"

Beteranoak hasiberrien ilusioagaz bueltatu dira eskubaloiara, Elorrio Txantxibiri klub berrian

Kirola • 28tik 46 urtera arteko hogeitabat jokalaria daude taldean, eta beterenen ligan dabilta. • **26**





Iñaki Totorikaguena
Sarrionandia

Iurretako alkatea

IURRETA | 1969

“Iurretako punta batetik bestera oinez edo bizikletan modu seguruan joan ahal izatea gura dugu”

Bideondoko eremua garatzea eta mugikortasunari loturiko proiektuak aurrera eramatea Iurretako Udalaren erronka nagusi legez azpimarratu ditu Totorikaguena.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iñaki Totorikaguena bere bosgarren agintaldiari ekin dio Iurretako Udalean. Beteranoena da Durangaldeko gaur egungo alkateen zerrendan. Iurretan datozen urteetarako dituzten proiektu nagusien berri eman du.

Bosgarren legegintzaldia hasi duzu Iurretako alkate karguan. Zer moduz abiatu duzu legegintzaldi berria?

Bai, bosgarren legegintzaldia da. Hamasei urte daramatzat eta legegintzaldi hau amaitzen badut, hogeitau urte egingo ditut. Baikortasunez ekin diot lanari, ilusioagaz gure proiektuak eta erronkak aurrera ateratzeko.

Zein erronka daukazue datozen lau urteetarako?

Kultur Etxearen ondoan dagoen Bideondoko eremua garatzea da erronketariko bat. Alde batetik, bertan 60 etxebizitza baino gehiago daude aurreikusita. Eta ez hori bakarrik; etxebizitza horietariko batzuk prezio tasatu batean egin gura ditugu, eremu horren zati bat udalarena da eta. Eremua garatuta, gune berdeak sortuko ditugu. Gure herrigunean ez daukagu gune berde askorik. Jolas parkeak ere sortuko dira, proiektu polita da eta ea bi-hiru urte barru garatu dezakegun. Beste proiektu garrantzitsu bat Bidebarrieta kaleko birgaikuntza amaitzea da. Ea datorren urtean zehar hasi gaitzekin. Bidebarrietako eremu horretatik kotxeak kendu gura ditugu, bidearen beste aldean aparkalekua eginda. Azken

obra hau esleituta dago eta hile amaieran martxan ipintzea espero dugu. Behin hori eginda, Bidebarrietan kotxeak kenduta, oinezkoentzat 1.000 metro koadroko espazio bat sortuko litzateke. Fase bi izango litzateke. Lehenengo fasea datorren urtean hasia gura genuke, gasolindegitik SACeraino. Bigarren fasea SACetik Batzoki pareraino. Legegintzaldiko hirugarren erronka trantsizio energetikoagaz lotuta dago. Proiektu potolo bi ditugu. Bata kultur etxearen energia-berrikuntza integralagaz lotuta dago. Estalkia aldatu, eguzki plakak ipini, isolamendua aldatu, geotermia sistema ipini... Horretarako, finantziarioa beharko dugu, eta lanean gabiltza. Bigarren proiektuari dago-kionez, kaleko argi guztiak LEDera aldatu gura ditugu.

2024rako aurrekontuak lantzen zabilzate?

Bai, hile amaieran onartzea gura genuke. 7 milioi eurotik gorako aurrekontua da. 775.000 euro ipiniko ditugu inbertsioetarako, aurrekontuaren %10.

Zein inbertsio proposatu duzue datorren urtera begira?

Bizikleta Plana garatzea gura genuke. Ekintza batzuk egiten hasi ginen, herrigunean bizikletari lehentasuna emateko. Basetan, Elizalden, Maspen eta Andaparapen izango da hori. Beste partida inportante bat Akiñenan eraikitzen gabiltzan pasabideko igogailua da.

Bizipistaren proiektuan, Bizkaiko Foru Aldundiagaz adostu genuen euren egingo zutela oinezkoentzako pasabidea, eta Iurretako udalak igogailua. Beresiko aisialdi gunean jolasgunea berritzea da beste proiektuetariko bat. Eta beste partida bat ere gorde dugu Maiztegiko eskolako patioa aldatzeko proiektua erredaktatzeko. Asfaltetik gabiltza lanean eskola komunitateagaz patioak eraldatzeko, ideiak landuta.

Iurretako enpresek Durangoko, Izurtzako edo Abadiñoako enpresek dituzten kontrol eta baimen berdinak dituzte

Ibaizabal errekan uholdeei aurre egiteko obrak egiteko hitzarmena sinatu duzue URA agentziagaz. Zertan da akordio hori?

Oso akordio garrantzitsua da. Ez da bakarrik ibaiaren hobekuntza bermatzeko eta egungo hirigunea Ibaizabalen ur igoeretatik babesteko. Hori inportantea da, baina hitzarmen honek Paduretako urbanizazioaren garapena ere bermatzen da. Gune horretan, urbanizazioa bermatzeko neurri batzuk planteatzen dira. Hainbat tipologiatako etxebizi-

tzak eraikiko dira eta 30.000 metro karratuko espazio berde bat eta ibai-parke bat egiteko aukera izango dugu. Tramitazioak urte batzuk eramango ditu.

Airearen kalitatea berba hartuta, Iazko legegintzaldian Durangoko Udalak Tecnaliaren ikerketa bat oinarri hartuta Durangoko kutsadura Iurretatik zetorrela ondorioztatu zuen.

Hori ez da egia, eta, gainera, frogatuta dago hori ez dela horrela. Joan zen legegintzaldian berba asko egin zen horretaz. Airearen kutsadura ez dator leku bakar batetik, eta herri guztietan ditugu enpresak. Iurretako enpresek Durangoko, Izurtzako edo Abadiñoako enpresek dituzten kontrol eta baimen berdinak dituzte. Gainera, aireak ez du mugarik. Airearen kutsadura ez dator industriatik bakarrik. Kotxeek, berogailuek... Eskualde industrializatu bat gara, bizi kalitate onekoa, eta horrek eragina du airearen kalitatean. Hala ere, uste dut airearen kalitatea ez dela txarra. Hobetu daiteke? Bai, baina hori denon eskuetan dago. Lan handia egiten da eskumena duten erakundeen aldetik. Udalak ere ahalegintzen gara gure esparruan neurriak ipintzen eta Eusko Jaurlaritzagaz behar egiten. Jaurlaritzako, Durangoko eta Iurretako teknikariek osaturiko foro bat dugu airearen kalitatearen inguruko gaiak aztertzeko, eta, beraz, gabiltza lanean.

Oposiziotik bazegoen kezka Smurfiten eraikierako tximiniaren inguruan.

Baimen guztiak ditu eta eraikita dago. Uste dut hor ere kontrolak eta inspektzioak badaudela egon, ezarritako neurriak ez gaintitzeko. Enpresa guztiek bete behar dute dugun legedia, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila hori kontrolatzeko dago.

Udal idazkaria bere postura bueltatu da epaitegiek udalaren errekurtsioa ebatzi bitartean. Zertan da gai hau?

Ez dut askorik esateko. Orain hartu-eman profesional eta konstruktiboa dugu, beti ere udalaren onerako. Bakoitzak bere eremuaren barruan behar egiten du, esku artean ditugun proiektuak aurrera ateratzeko. Gurago dut aurrera begiratu atzera baino. **Udal basoetan bertoko espezieak landatzeko mozio bat onartu zenuen. Zelan doa proiektu hori?** Gure mendietan Aldundiagaz kudeatzen dugu gaia. Iazko abenduan hiru mendi erosi genituen, 96.000 metro koadro guztira, udalak lehendik zituen 74.000 metro koadroei gehitzeko. Espezie autoktonoak landatzea da asmoa. Orain, basoberritze hori esleitzeko prozesuan gaude eta 50.000 euro ipini ditugu horretarako.

Mugikortasunaren arloan hainbat aldaketa egon da azken urteotan lurretan. Zein balantze egiten duzue?

Iurretako punta batetik bestera oinez edo bizikletan modu seguruan joan ahal izatea gura dugu. Akiñenan espaloia egin dugu, pasabideagaz eta bidearen beste aldeagaz lotzeko. Goiuriako espaloia ere amaitu dugu, Deabruaren Zubia zegoen lekuan eraikiko den pasarelagaz lotu eta Durangoko kirol gunera heltzeko. Bizikleta Plana ere garatzen hasi gara, bizipista

XVII. mendeko Iturrioz baserria mantentzea lortu dugu. Harriz harri desmuntatu eta berrogei metro harago eraikiko da

berria gure beste bidegorriekin lotzeko. Sare bat sortu gura dugu modu seguruan mugitzeko.

N-634 errepidea bulebar bihurtzea inflexio puntu bat izan da?

Hasieratik esan genuen zero puntu bat izango zela hori. Proiektu horretatik beste proiektu pila bat egin dugu mugikortasun arloan. Herria kohesionatu egin du. Lehen trintxera bat eduki genuen eta alde batetik bestera igarotzeko modu bakarra beheko tunel bietatik zen.

Momentu honetan, esango nuke %90 goitik pasatzen dela.

Zertan da Santa Apoloniako industrialdea?

Dagoeneko hasi dira lanean. Hiru milioi euro baino gehiagoko aurrekontua du. Espazio guztia aldatuko da eta alderdi guztiak hobetuko dira: ingurumenari dagokiona, urbanizazioa, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak... Espazio horretan dauden enpresek ere behar zuten hori, euren jarduera gaur egun ingurumen eta hirigintza estandarretara egokitzeko. Gainera, inguru horretan dagoen XVII. mendeko Iturrioz baserria mantentzea lortu dugu. Harriz harri desmuntatu eta berrogei metro harago eraikiko da.

Zelan dago tokiko merkataritza lurretan?

Tokiko merkataritza bultzatzen ahalegintzen gara, Dendak Baigaz kanpainak eginez. Urtean 20.000 euro ipintzen ditugu tokiko merkataritza sustatzeko. Gainera, hirigunean enpresa edo merkataritza proiektuetarako 6.000 euroko laguntza mantentzen jarraitzen dugu. Gure eskura dagoen guztia egiten ahalegintzen gara, baina badakigu ez dela erraza eta erreleboa geroago eta gatzagoa dela.

Baserrietan etxebizitza gehiago egin ahal izateko ordenantza lantzen zabilzate.



Landaguneak jarraipena eta iraupena izan ditzan egin dugu apustu hau. Urte askoan ikusi dugu auzoetako herritarrak herrigunera joan direla bizitzera, baserrietan etxebizitza bi eraiki daitezkeelako. Orain dela hile batzuk aldatu egin zen legea, eta horrek aukera ematen digu ordenantza bidez gai hau beste modu batean arautzeko. Baserrietako etxebizitza kopurua bikoiztea ahalbidetuko duen ordenantza

izango da. Baserrien birgaitzea eta egokitzapena bultzatu gura ditugu; azalerari eta irisgarritasunari buruzko baldintza batzuk betetzen dituztenen kasuan, jakina. Bertako biztanleei bizi aukera bat eman gura diegu lurzorua berriak okupatu eta urbanizatu barik, gazteek baserrietatik alde egin beharrik izan ez dezaten.

Euskararen erabileraren inguruan, zein egoera duzue lurretan?

Beste leku askotan legez, sentsa-

zioa da ezagutza handitu egin dela, baina erabilera ez dela erarean handitu. Eragin egin behar da, baina ez dakigu zelan. Gure gazteek sare sozialak eta hedabideak euskara ez den hizkuntzetan kontsumitzea ohikoa da. Bestalde, gure kultur ekitaldirik gehienak euskaraz dira. Gazteengana zuzenduriko dena euskaraz da; helduentzako jarduerak, ostera, ele bitan dira. Ildo horretatik, argi dugu non eragin gura dugun.



Okm: batzen gaituen distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

30€
urtean!

anboto
kide

Durangoko Institutuko ikasleek antzezlan bat garatu dute Zipreko, Errumaniako, Italiako eta Greziako ikasleekin

Durangoko Institutuak lau herrialde horietatik etorririko 24 ikasle eta 20 irakasle hartu ditu Erasmus programaren barruan. Jasangarritasuna oinarritzat hartuta, obra bat osatu dute. Nazioarteko ikasleak domekara arte egongo dira Durangon



Ikasleek asteleheneretik eguaztenera egin zituzten entseguak. Obra egunean taularatu zuten.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Institutuko aretoa nazioarteko ikasleen topaleku izan da asteon. Errumaniatik, Zipretik, Greziatik eta Italiatik etorririko ikasleak bertako oholtza gainera igo dira, Durangoko

institutuko ikasleekin batera obra bat taularatzeko. Joan zen domekan, nazioarteko 24 ikasle eta 20 irakasle ailegatu ziren Durangora, eta domeka honetara arte egongo dira hemengo ikasleekin, apopilo. Ikasleek astelehen

goizean izan zuten antzerki obraren lehenengo entsegua, entsegu bateratua. Hain zuzen ere, orain arte bakoitza bere jaioterrian ibili da eta obra garatzen. "Lan handia dago atzetik. Ordu asko sartu dugu. Irakasle on artean etengabe

egongo gara hartu-emanen. Gi-
doia geuk landu dugu Durangon, eta nazioarteko ikasleei bidali egin diegu", zehaztu du Jasmina Gorroñok. Batxilergo artistikoko irakaslea da Gorroño, eta antzerki obra koordinatzen dabilen arduradunetarikoa bat.

Edurnezuriren sagarra nork pozoitu duen, horixe da antzerki obraren mamia. "Erasmus programaren barruko proiektua denez, XXI. mendeko Europak dituen erronkak antzerkiaren bitartez lantzea da proiektuaren ardatza. Mugikortasunak dakarren erronka da eurretari bat, eta obra honetan jasangarritasuna lantzea pentsatu dugu. Umeei begirako antzerkia denez, haur literaturako pertsonaiak hartu, elkar nahastu, eta emaitza hau lortu dugu", dio Gorroñok. Aipaturiko jasangarritasuna dela eta, zakarrontzira botatzekoak ziren objektuei bigarren erabilera bat eman diete ikasleek. Birziklatu-
riko materialagaz sortu dituzte obrarako jantzi guztiak.

Aizpea Gozategi ondarroarra arte eszenikoei loturiko batxilergo ikasketak egiten dabil institutuan. Erasmus proiektuan parte hartzen ez badu ere, laguntzen dabil antzerki obrak aurrera egin dezan. "Dantza eta musikak kudeatzen nabil eszenatokitik kanpora", dio. Bestalde, Laura Olabarria durangarra Durangoko Institutuan dabil, DBHko 3. maila ikasten. Antzezle lanak egitea egokitu zaio obran. "Maitagarri baten rola jokatzea egokitu zait",

Obra jasangarritasuna izan du oinarri, eta birziklatu-riko materialagaz sortu dituzte jantziak

zehaztu du. Olabarriak nazioarteko ikasleak jaso ditu asteon, baina maiatzean bera izan zen bisitari, Greziako Kavala hiriko ikastetxe batean egonaldia egin zuenean. "Oso egonaldi atsegina" izan zela dio.

Entseguak amaituta, antzerki obra egunean taularatu zuten, institutuko aretoan bertan. Durangoko zein Bizkaiko beste hainbat herri bisitatu eta gero, nazioarteko ikasleek domekan egongo diote agur esperientziari.

Durangoko elkarteek jaialdi solidario bat antolatzeari ekin diote haur minbiziaren kontra egiteko

La Cuadri del Hospi elkarteagaz batera jaialdi erraldoi bat egingo dute maiatzaren 12an

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Lehenengo harria baino ez dute ipini, baina argi dute helmuga. Maiatzaren 12an, Landako Guneak haur minbiziaren kontrako jaialdi erraldoi eta solidario bat hartuko du. La Cuadri del Hospi elkarteak udalari, herriko elkartei eta herritarrei deitu die auzolanean jaialdi benefikoa antolatzera. Eguazten iluntzean, arlo askotako elkarte eta eragileek

txiki utzi zuten Durangoko osoko bilkuren aretoa. Modu batera zein bestera, denek bat egin zuten jaialdia antolatzeko proposamenagaz.

Susana Del Amo durangarra La Cuadri del Hospi elkarte gurasoetarikoa bat da, eta berak jakinarazi zituen jaialdiaren nondik norakoak. Jardunaldiak 'Gu be zuek gara' izango du izenburu, eta egun osoko egitaraua izango

du oinarri. Ikastetxeetako ikasleekin eginiko 5 kilometroko martxa, ile-mozketa solidarioak, jokoak eta eskulanak, tonbola, errifak, hezur-muina emateko postua, kontzertuak eta txosnak. Antolatzaileek "egundoko ekitaldia" egitea gura dute. Baturiko dirua elkarteak martxan dituen proiektuak diruz hornitzeko eta ume onkologikoen bizi kalitatea hobetzeko izango da



Eguazten iluntzean jaialdi benefikoa aurkeztu zuten Durangoko udaletxean.

anboto >

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko azaroaren 17a
22. urtea - 957. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

50eko hamarkadatik honako migrazio prozesuak aztergai, Giza Bibliotekan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Azaroaren 17tik abenduaren 2ra arteko jardunaldietan, hainbat jatorritako durangarrek euren artean batu eta bizi izandako esperientziak partekatuko dituzte. Jardunaldien helburu nagusia 1950eko eta 1970eko hamarkaden bitarteko eta 1990eko hamarkadatik honako migrazio prozesuak aletzea izango da.

Azaroaren 17an, 19:00etan, helduen ahozko narrazio saioa egingo dute. Hilaren 22an Xabier Aierdi soziologoak berbal dia emango du Durangoko migrazio faseei buruz (19:00etan). Azaroaren 23an Zineforuma egingo dute Aita Mari filmagaz (18:30ean, Elkartegian), eta 29an Giza Bibliotekaren edizio berri bat egingo dute Bibliotekan, 18:30ean. Abenduaren 2an, Senegalgo musikan oinarrituriko perkusio tailerra egingo dute (12:00). Saiotetan parte hartzeko, aurretiaz izena eman beharko da Bibliotekan.

Zornotzako jaietako kontzertuak aukeratzeko prozesua, martxan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak eta Jai Batzordeak herritarrei zuzenduriko galdetegi publiko bat zabaldu dute Karmen eta Santanatuetak kontzertuak proposatzeko. Herritarrek abenduaren 10era arteko epea izango dute parte hartze prozesuan ekarpenak egiteko. Koldo Bilbao zinegotziak adierazi du funtsezkoa dela herritarren lehentasunak eta nahiak bertatik bertara ezagutzea, ondoren biztanle guztiei begirako jai programa diseinatzeko. Proposamenak Internetez bidali beharko dira, *amorebieta.eus* webgunean dagoen orria beteta.



lazio txupinazoko argazkia.



Jesus Cañasek gaur zarratuko du denda.

“Oso esker oneko nago denekin, argi dut aurrerantzean ere elkar ikusten jarraituko dugula”

Erretiroa hartuta, Jesus Cañasek bizikleta denda zarratuko du arratsalde honetan bertan. Herritarrek eskertzeko asmoz, mokaduak eta edaria eskainiko ditu, 19:30ean

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Jesus Cañasek ondo gogoan du denda zabaldu zuen eguna. Euskal Herriko Itzuliko erlojupekoa Zallan (Bizkaia) jokatu zen eguna. 2009ko apirila zen. Orain, hamalau urteko ibilbidearen ondoren, Zornotzan bizikletak erosteko zein konpontzeko geratzen zen denda bakarraren arduradunak jubilazioa hartuko du.

Denda zarratu eta erretiroa hartuko duzu. Zelan zaude?

Kariño eta maitasun handiz gidatu dugun negozioa da, eta, horrenbestez, beti kostatzen da denda behin betiko itxiko duzula barneratzea.

Azken urte eta erdian, negozioari jarraipen bat emateko erreleboa topatzen ahalegindu naiz, baina ez da posible izan. Prest nengoen interesa zuenari hemengo jarduna irakasteko, kontaktuak pasatzeko, hemengo martxa erakusteko, baina ez da inor animatu. Pena bat da, herrian ez delako honelako dendarik geratuko.

Pena ematen du erreleboa ez izateak.

Bai, pena handia ematen dit. Frantziako Tourra hemendik hasi zenean, dendako hornitzaile eta markekin komentatu nuen hau guzti hau. Haiekin egon, eta gauza bera

komentatzen nien, pena nuela. Dena dela, oso pertsona hiperaktiboa naiz, eta badakit aurrerantzean ez naizela aspertuko. Ingeniaria naiz izatez, automozioari loturiko enpresetan lan egin nuen, eta, txirrindularitza gustuko nuen, negozio hau martxan ipintzea pentsatu nuen. Autonomo egitea erabaki nuen.

Noiz zabaldu zenuen Bicis Cañas denda?

2009ko apirila zen, Euskal Herriko Itzuliko erlojupekoa Zallan jokatu zen eguna. Egun hartan zabaldu nuen denda. Jai txiki bat egin genuen. Roberto Laiseka eta Iban

Mayo txirrindulariak, adibidez, hemen izan ziren.

Itxieragaz batera, bizikletak erosteko edo konpontzeko dendarik barik geratuko da Zornotza.

Bai, garai batean halako hiru denda zeuden herrian. Eta txirrindulariei ez ezik, patinetea dutenei edo gurpildun aulkia dutenei ere eman izan diet zerbitzua. Adinekoen egoitza denda aurrean dago, eta bertako erabiltzaileentzat oso eroso izan da zerbitzu hau. Hona etorri eta behar zutenean laguntzen nien, gurpilekin-eta. Haur-kotxeekin ere, berdin. Azken finean, herri batean zerbitzu hori ere eman behar duzu.

Ahalegindu naiz baten bat topatzen nire errelebeoa hartzeko, baina ezin izan dut eta pena dut

Zer eman dizu dendak?

Momentu on ugari. Estuasunak ere bai, hasierako urteetan, batez ere. Baina momentu onak gehiago izan dira. Azken urteak, adibidez, oso onak izan dira. Eta ekonomikoki ere, onak izan dira. Horrez gainera, Bilbo-Bilbo proban edo Orbeak antolatzen duen Monegroetako proban ibiltzen naiz mekanikari. Laguntza teknikoa eskaintzen dut.

Zer esan gura diezu herrikideei, bezeroei?

Zornotzako herritarretatik aparte, Arratiako, Durangoko, Gernikako, Markinako, Ondarroako eta Berriatuako bezeroak izan ditut. Ez dut barbarik. Oso eskertuta nago, denagaitik. Denda zarratu arren, argi dut aurrerantzean ere elkar ikusten jarraituko dugula.

Zornotzako Udalak harrera egin dio El Salvadorko Lorena Peña politikariari

Peña Nazio Askapenerako Farabundo Martí Fronteko kidea da. Berbal dia eman du



Lorena Peña, bigarren ezkerretik, udal ordezkarekin eta Mundubat elkartearen kideekin.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Lorena Peña politikari salvadortarrak berbal dia eman du Zelaieta zentroan, Mundubat elkartearen eta udalaren bitartekaritzagaz. Nazio Askapenerako Farabundo Martí Fronteko kidea da Peña, eta ibilbide oparoa du diputatu eta Asanblada Legegileko presidente legez. Zornotzan azaldu duenez, "oso egoera kritikoa" bizi dute El Salvadorren. "Inboluzio erraldoi bat bizitzen gabilta, atzerapauso handi bat. 1970eko hamarkadan bizi izaniko

diktadura militarra atzean utzi genuen, baina orain, Nayib Bukele presidentea boterean denetik, 1970eko garai hartara bueltatzen gabiltzala esan daiteke", azaldu du. Peñak dioenez, giza eskubideak defendatzen dituzten politikariak, elkarrekin eta ezkerreko ideologia duten mugimenduak gobernuaren jo puntuan daude. "Militarizazio berri bat bizi dugu, eta baita aberastasuna esku guxi batzuetan batzeko aro berri bat ere", zehaztu du. "72.000 preso daude salbuespen egoeran. Ez dute lege babesik. Armadak abusuak gauzatzen ditu, umeak bortxatzen ditu. Militarrei eta politikariei beharrezkoa den baino botere gehiago ematen zaizkien, horrelako egoerak sortzen dira", azaldu du Peñak.

Abadiñoko Udalak kale garbiketako zerbitzua indartuko du auzoetan eta asteburuetan

Pleguak EH Bilduren, Abadiñoko Independente Berrien eta PSE-EEren botoekin onartu zituzten. EAJK kontra bozkatu zuen

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken osoko bilkuran, Abadiñoko Udalak kale garbiketako zerbitzu berriaren kontratazioa arautuko duten pleguak onartu zituen. Zerbitzu hori indartu egingo da 2024ko lehenengo hiruhilekotik aurrera, zerbitzu gehigarria eginez asteburuan.

Traña-Matienan eta Astolan ez ezik, Zelaietan eta Muntzaratzen ere arituko da erratz-makina egunero. Horretarako, langile gehiago arituko da, lanaldi bi eta erdi gehiago. Jakinarazi dute baita ere Zelaietako eta Muntzarazeko garbiketako zerbitzua udal langileek egiten dutela, baina

beste pertsona batez indartuko dutela.

"Abadiñoko garbiketako zerbitzua osorik indartzea erabaki dugu eta otsailetik aurrera egunero egongo da garbiketako zerbitzua, behargin gehiagorez, kalitatearen kontrol handiagorez. Eta kontrataturiko pertsona guztiak udaleko lan-poltsetan daudenak izango dira", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

EAJKo kideak kritiko agertu ziren plegu berriekin. "Plegu hauek gaur egungoak baino hobeak dira, baina guk aurrekusten genituenak baino txarragoak. Gure ustez, ez da erabaki ona", kritikatu zuen Mikel Garaizabal EAJren bozeramaileak. Alkateak erantzun zion Garaizabali haiek gobernatu zuten "kontratuak luzatu" baino ez zituztela egin.



Abadiñoko kale bateko argazkia.

Abadiñon 509 proposamen jaso dituzte aurrekontu parte hartzaileetan

Abadiñoko Udalean jaso dituzten 509 proposamen horiek 252 lagunek egin dituztela azaldu dute



Abadiño kale bateko argazkia.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, 509 proposamen jaso dituzte aurrekontu parte hartzaileetan, eta, guztira, 252 lagunek parte hartu dute. Orain, udal teknikariak proposamen horietariko bakoitzaren bideragarritasuna aztertuko dute, herritarren eskura ipiniko den proiektuen zerrenda zehaztu eta 2024ko udal aurrekontuan sartuko diren proiektuen azken aukeraketa egiteko.

"Parte hartzea oso handia izan da eta pozik gaude alde horretatik. Horixe da helburua, herritarrak

inplikatzeko eta Abadiño hobea egiteko iradokizunak helaraztea. Orain, horiek aztertzea eta bozkatu ahal izango diren proiektuen zerrenda osatzea dagokigu, baina ekarpen guztiak kontuan hartuko ditugu modu batera edo bestera. Aldi berean, lanean jarraitzen dugu aurreko prozesuko agindua betetzeko eta Traña-Matienan komun publikoak instalatzeko", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

Proposamenei dagokienez, gehienak (321) hirigintza arloagaz dute zerikusia, eta beste askok ingurumen arloagaz (77).

Nekazari eta artisauek Atxondoko azokan izena emateko aukera dute

Nekazari eta artisau azoka abenduaren 3an egingo dute



Aurreko edizio bateko azokako argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtero abenduaren lehenengo domekan, nekazaritza eta artisautza azoka egiten dute Atxondon, Apatamonasterion. Aurtengoa abenduaren 3an izango da. Abenduaren azoka hau arrakastatsua izaten da, baina arrakasta horretan ezinbestekoak izaten dira bertan parte hartzen duten nekazari eta artisauek. Orain euren txanda da eta dagoeneko zabalik dute epea bertan izena emateko, azaroaren 25era arte. Horretarako, interesdunek udal bulegoetara joan edo azoka@atxondo.eus helbide elektronikora idatzi behar dute.

Postuen kokalekua

Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, artisauak frontoi barruan egongo dira aurten, eta bakoitzak mahai bat izango du erabilgarri. Azokako gainerako partaideek frontoitik kanpora izango dute lekua, BBK erakustokia.

'Les Misérables' musikala, kantu eskolako ikasleen eskutik

Edurne Eguia irakasleak zuzenduta, kantu eskolako ikasleek musikaren moldaketa aurkeztuko dute gaur

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaur arratsaldean, Elorrioko kantu eskolako ikasleek emanaldi berezia egingo dute Elorrioko musika eskolako aretoan. Edurne Eguia irakasleak zuzenduta, *Les Misérables* musikaren moldaketa aurkeztuko dute. "Musikala ikusi nuenean, ederra iruditu zitzaidan eta pentsatu nuen gozamen izan behar zuela halako zerbait egiteak, eskala txikiagoan. Iaz aukera ikusi nuen, mutil gehiago sartu zelako musika eskolako kantu klaseetan. Abestiak prestatzen hasi eta poliki-poliki heldu zaigu jendaurrean aurkezteko ordua; urduri gaude, baina gogotsu aldi berean", azaldu du Eguia irakasleak.

Parte hartzaileei dagokienez, dena hobe abeslari arituko direla jakinarazi dute: Elorrioko, Durangoko eta Bilboko abeslariak.

Gaurkoa estreinaldia izango da eta datozen bariku bietan beste

Gaurkoa lehenengo emanaldia izango da eta datozen bariku bietan beste saio bi egingo dituzte

saio bi egingo ditzute. Antolatzaileek azaldu dutenez, dagoeneko sarrera guztiak agortuta daude; beraz, ez dute baztertzeko aukerarik emanaldi bat egitea.



Ostalaritza gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Iurreta**



GAUARGI
Dantzari 4 behe, IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 **Durango**



BASA - EROATEKO JANARIA
Untzillatx, 9 - DURANGO
Tel.: 747 421 104

Hemengo eta kanpoko platerak, kalitatezko eta gertuko produktuez prestatuak. Eguneko menua eta karta. Etorri ta eroan!

 **Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 **Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2B - DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Mallabiko Bertsolari Gazteen Txapelketako lehenengo kanporaketan Unai Izagirre eta Aissa Intxausti sailkatu dira finalerako

Bigarren kanporaketa azaroaren 24ko barikuan izango da, Berano auzoko soziedadean



Aissa Intxausti (ezkerretik hirugarrena) eta Unai Izagirre (eskumatik bigarrena), joan zen asteburuko bertso afarian. **BALENTIN MUGARZA**

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen barikuan Mallabiko Bertsolari Gazteen Txapelketako lehenengo kanporaketa jokatu zuten Goitia auzoko San Juan soziedadean. Unai Izagirre, Aissa Intxausti, Irati Alcantarilla eta Iker Garitagoitia aritu ziren bertsoan, eta lehenengo biak sailkatu ziren

finalerako: Izagirre azkoitiarra eta Intxausti lekeitiarra.

Bertso afariko publikoak osatu zuen epaimahaia. Baturiko bertsozaleek paper banatan apunturiko puntuazioa gehituz erabakituzten finalista biak.

Bigarren kanporaketa azaroaren 24an izango da, 21:30ean, Bera-

no auzoko Artixeko soziedadean. Bertatik beste finalista bi irtingo dira, lau hautagai hauen artean: Ane Zuazubiskar, Ibai Amillategi, Oier Etxeberria eta Gorka Pagonabarraga. Bertso afari horretarako txartelak Herrikoan edo frontoian eskuratu daitezke, 25 euroan. Finala abenduaren 8an izango da.

Mallabian batzarra egingo dute astelehenean, herriguneko beharrianak jakiteko

Udalak antolaturiko batzar sortako azkena da

MALLABIA • J.D.

Mallabiko gobernu taldeak hainbat bilera egin du asteen, auzoetako bizilagunek auzoan dituzten beharrianak jakiteko. Batzar sorta horretako azkena herrigunean bizi direnekin egingo dute. Deialdia datorren astelehenerako da. 19:00etan batuko dira, Kontzejuzarrean. Bileran egungo egoerari buruzko informazioa partekatuko dute, 2024rako pentsatuta

dagoen aurrekontua azalduko dute eta auzoak hobetzeko egin daitezkeen proiektuei buruz ere arituko dira, beste kontu batzuen artean.

Aurreko egunetan, Goita, Geera, Arandoño, Beranonagusia, Beranotxikia, Areitio, Aitx, Osma, Zengotita eta Hiriguneko auzoetako bizilagunek euren kezkek eta iradokizunak helarazteko aukera izan dute.



Guztira, hamar auzotako bizilagunekin batu dira, lau batzarretan banatuta.



Mañarian egongo den egur jolasetariko bat. **ALAIKI ZURESKU JOLASA**

Txixiburduntzia eta egur jolasak domekan, Mañarian

Andra Mari elkarteak antolatuko du domekako ekimena

MAÑARIA • J.D.

Andra Mari kultur eta aisialdi elkarteak familia giroan gozatzeko plana prestatu du domeka honetarako. Mañariko plazan izango da. Goizean, 11:00etatik 14:00etara, umeentzako jolasak egongo dira. Ekimen honen arduraria Alaiki enpresak izango du. Alaikiren Zuresku jolas guztiek antzeko ezaugarri bat dute: zurez eginikoak dira. Umeek jolas askoren bitartez ipiniko dute proban

euren trebetasuna. Aurrekoaldi batzuetan umeen arteko futbito txapelketa egin izan dute, baina aurreko ekimen berri hau probatzea pentsatu dute Andra Mariko guraso elkarteko kideek.

Horren ondoren, familia giroan bazkalduko dute. Txixiburduntzia egingo dute plazan. Ez dute txorizorik, hirugiharrik eta gaztainarik faltako. Eurria egiten badu, ekimenak pilotalekura tokialdatuko dituzte.

Izurtzaren garapena berbegai, eguenean egingo den Tokiko Agenda 30eko batzarrean

Azaroaren 23ko bilera irekia Izurtzako udaletxeko udalbatza aretoan egingo dute, 18:00etan

IZURTZA • J.D.

Urtero legez, aurreko ere Tokiko Agenda 30eko Foroko batzarrean parte hartzeko aukera dago Izurtzan. Aurtengo batzarra datorren asteko eguenean egingo dute, azaroak 23, 18:00etan, udaletxeko udalbatza aretoan. Izurtza herria eta honen garapena izango

dute berbegai. Herriaren egoera zein den aztertzeko eta etorkizunera begira herria hobetzeko egin daitezkeen proiektuen gainean berba egiteko aukera egongo da. Izurtzako Udaletik dei egin diete izurtzarrei bileran parte hartzeko eta euren proposamenak adierazteko.



Batzarra Izurtzako udaletxean izango da.



Otxandioko Udalak mantentze-lanak egin ditu zurezko zubietan

OTXANDIO • J.D.

Otxandiok hainbat ibilbide labur (PR) ditu herriko eta bere inguruko ondarea bertatik bertara ikusteko aukera eskaintzen dutenak. Bide horiek zurezko zubi bat baino gehiago zeharkatzen dituzte eta azken asteetan zubi horiek eraberritu ditu Otxandioko Udalak. Lan horien barruan, apurtuta zeuden zatiak berri batzuegaitik aldatu dituzte eta gainean daramaten sare metaliko berria ipini dute. Sare horien helburua bertatik igarotzen diren oinezkoen segurtasuna bermatzea da, labain egin ez dezaten.

Durungaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak


anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



Sexberdinak antzerkirako sarrera bikoitza. Azaroaren 25ean, Berrizko Kultur Etxean.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Gauargi tabernan bi pertsonentzako gosaria. Iurreta.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Lasala dantza ikuskizuna Berrizen:

Eskarne Bereziartua Txintxurreta

Papirus antzerkia Arriolan:

Urko Zabaleta Azarlotza

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



2023an bandalismoaren eraginez 6.000 eurotik gorako kalteak izan direla salatu du Zaldibarko Udalak

Zapatuan autobus bati harrika egin ziotela nabarmendu du udalak bando baten bitartez; "jauzi kuantitatiboa da",

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak azken hileetan izan diren "bandalismo ekintzak" salatu ditu; egoera "onartezina eta oso kezagarria" dela iritzita, gertakarien berri eman dute bando baten bitartez. 2023an 6.000 eurotik gorako kalte ordainak sortu dira salaturiko gertakari horietan,

eta udalak salatu du "urrian astebururo" egon direla horrelakoak. "Bandalismo-ekintzek instalazio eta ondasun publikoetan eragin dituzte kalteak, eta hori zaldibarko guztiok ordaintzen dugu. Bizi dugun egoera onartezina da, eta oso kezagarria. Udalak hartu beharreko neurriak hartuko ditu

ekintza horiek berriro gertatu ez daitezen", salatu dute. Horrez gainera, azken asteburuan gertaturikoa nabarmendu dute, egoera larritu duelakoan: "Zapatuan autobus bati (Apurtu arte klubaren autobusa) harrika eraso egin zioten. Eraso hori jauzi kualitatiboa da, pertsonen segurtasuna ipini zelako arriskuan".

Kronologia

Bandoagaz batera, erasoaren kronologia eta kostua aletzen dituen txostena webgunean ipini du udalak. Erasoak eskola eremuaren inguruetan izan dira, batez ere. Birritan apurtu dituzte Haur Hezkuntzako eraikineko kristalak, eta txirrin berriak ere ipini behar izan dituzte. Ondoko jolas parkeko txirrista apurtu eta erre egin zuten, eta berria ipini beharko dute.



Kalteak, parkeetako batean.

Heriotzari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen, beste urte batez

Zainketa Aringarrietako arduraduna den Jesus Sanchezek berbaldia emango du, hilaren 29an



BERRIZ • A. M.

Iaz hasiriko bideari jarraitzeko, ekitaldi sorta berria antolatu dute Berrizen heriotzari eta bizitzaren amaierari buruz berba egin, eta errespetuzko espazioak eraikitzeko. Asteon, Death Cafe topaketa egin dute Kultur Etxean. Bigarren ekitaldia azaroaren 29an izango da; Jesus Sanchez mediku eta Gurutzetako Zainketa Aringarrietako arduradunak berbaldia emango du. "Gizartean kostatu egiten zaigu heriotzaz berba egitea, eta, beraz, errespetua eta intimitatea bermatzen dituzten ekintza eta saioak antolatu ditugu", azaldu dute antolatzaileek. Zikloa amaitzeko, abenduaren 21ean 'Gabonak dira eta aulki hutsa dago etxean' lelopean hildakoak gogoratuko dituzte, eta berriztar bik euren testigantza emango dute.

Berrizko Kultur Etxean izango dira ekitaldiak.

Ricardo Gutierrez Abascalen gorpuzkiak Garaiko familiaren panteoira ekarri dituzte

'Juan de la Encina' ezinez ezaguna zen kulturgilea omenduko dute martitzenean Garain



Pilar Zubiaurre eta Ricardo Gutierrez Abascal.

GARAI • JONE GUENETXEA

Kultur arloan, Juan de la Encina ezinez ezaguna zen Ricardo Gutierrez Abascal, Pilar Zubiaurre idazle eta kultur ekintzailearen senarra. Bilbon jaio zen, eta 1931tik 1936ra Arte Modernoko Museo Nazionalaren (egungo Reina Sofia Museoaren aurrekoa) zuzendaria izan zen. Gerra zibila hasi zenean, Errepublikaren alde agertzeagatik Mexikon erbesteratu, eta han

egonkortu zen. Irakaskuntzari loturiko ibilbide garrantzitsua egin zuen Mexikon.

Omenaldia Garain

Gutierrez-Zubiaurre familiak, Garaiko Udalak eta Gerediaga Elkarteak Ricardo Gutierrez Abascalaren oroimen ekitaldia antolatu dute datorren asteko martitzenerako. 19:00etan izango da, Garaiko udaletxean. Izan ere, orain

dela gutxi Gutierrez Abascalen gorpuzkiak Garaiko familiaren panteoira ekarri zituzten. Gainera, haren heriotzaren 60. urteurrena betetzen da aurten. 2000. urtean Garain eginiko Ezpatadantzari Egunean Zubiaurre neba-arrebei

Gutierrez-Zubiaurre familiak, Garaiko Udalak eta Gerediagak antolatu dute martitzeneko ekitaldia

omenaldia egin zitetenean, Leopoldo Gutierrezek (Ricardoren semea) bere gurari bat plazaratu zion Gerediagari: bere familiako kide guztien gorpuzkiak Garaiko kanposantuan dagoen familiaren panteoira ekartzea. Ordurako, Pilar Zubiaurre amaren gorpuzkiak bertan zeuden, baina gainerako senitartekoenak Madrilen eta Mexikon zeuden. "Orain, Gurierrez-Abascalen gorpuzkiak Garaira ekarrita, esan dezakegu Leopoldo Gutierrezen nahia bete dela", azal-



60 postu ipini zituzten Ermuko kaleetan. EUSKAL BIRUSA ELKARTEA.

Eskualdeko ekoizleek sari ugari lortu dute Ermuko San Martin azokan

Mallabiko, Abadiño eta Zornotzako ekoizleak daude sarituen artean. Azoka Ermuko Euskal Birusa euskara elkarteak antolatzen du urtero. Aurtengoa 33. edizioa izan da

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ermuko Euskal Birusa euskara elkarteak urteroko ohiturari eutsi dio aurten ere. Hogeita hamahirugarren aldiz, San Martin eguneko azoka egin zuen joan zen zapatuan. Bertan, Durangaldeko baserriarrek hainbat sari irabazi zuten. Agarre baserriko Maria Pilar Mallabiak (Mallabia) fruta eta ortuari posturik onenaren saria

lortu zuen. Gaztari dagokionez, Anbe baserriko Aitor Urienek (Abadiño) eta Onandi baserriko Eñaut Gallastegik (Mallabia) lehenengo eta bigarren sariak eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Sagardoaren saria Etxerriagako Unai Bilbaok (Zornotza) irabazi zuen, eta ogirik onenaren saria Mañe baserriko Luis Mari Osak (Mallabia).

Iurretan jarduera protokoloa sinatu dute Ibaizabal ibaian izan daitezkeen uhaldeetatik babesteko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak eta URA agentziak jarduera protokoloa landu dute Ibaizabal ibaian izan daitezkeen uhaldeetatik babesteko. Batetik, Paduretako ibarrean (Ibaizabalen eskuinaldean) ibai-parke bat egokituko dute eta, bestetik, defentsarako hormatxoak egingo dituzte. Iurreta eta Durango lotzen dituen zubiaren azpiko presa txikia ere kenduko dute. Modu horretan, "ur-goraldi errepikakor eta naturaletatik babestuko dute herrigunea", udalak jakinarazi duenez.



Udalak eta URA agentziak modu koordinatuan garatuko dituzte lanak.

Etxearen alokairuagaz lagunduko diete gazteei Iurretan

Gazteei zuzenduta, Iurretako Udalak etxebizitza alokatzeko diru laguntza deialdia zabaldu du; 9.000 euro gorde ditu

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 9.000 euroko diru poltsa lotu du aurten, herriko gazteek etxebizitza alokatzeko diru laguntza deialdirako. Iurretan erroldaturiko 18 urtetik 35 urtera arteko gazteek abenduaren 22ra arte egin dezakete eskaria.

Udalak euren emantzipazio prozesuan lagundu gura die gazteei, eta euren artean etxebizitza

alokairuan hartzeko aukera sustatu Iurretan, udal ordezkariak argitu dutenez. Diru laguntzak hileko alokairuaren prezioaren erdiari aurre egingo dio, komunitateko eta etxebizitzaren eranskinetako gastuak kenduta. Argitu dutenez, gehienez ere 250 euroko laguntza emango dute hile bakoitzeko. Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) hartu daitezke eskaera orriak.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

946 523 935
bertako.eus



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Arabatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako hamar saltokitako ordezkariak Durangon izan ziren joan zen egunean, bertako merkataritza bertatik bertara ezagutzen. Bisita Dendak Bai elkarteak antolatu zuen, Retailko Euskal Eskolagaz eta Bilboko Merkataritza Ganberagaz elkarlanean. Goiz osoan zehar, dendariak herriko zortzi komertzio bisitatu zituzten (CrisLa Sweets, SanchoTena, Sylke, Alga Artean eta Tantaka Diseinu Faktoria, Olabegojeaskoetxea harategia, Tyl Spaces, Dossis Design eta Saltsan). Dendari bakoitzak bere istorio pertsonala, kontu teknikoak eta saltokian bizi izandako esperientziak kontatu zituzten bisitariari.

EAEko hamar saltoki Durangoko merkataritza ezagutzera etorri dira

Arabatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako hamar saltokitako ordezkariak egon ziren



Bisitako geldialdiari buruz, Olabegojeaskoetxea harategian.

Politikan

Patxi L. Lakuntza

Herriaren Eskubidea



Ikusezina dena ikusarazi

Irisgarritasuna, askotan, esku-bide bat definitzeko erabiltzen dugun hitza da, kontuan hartu gabe pertsona askorentzat premia bat dela eta, beraz, betebeharrak gisa hitz egin beharko genukeela. Hiri-inguruneetan irisgarritasun unibertsala eragozten duten oztopoek, praktikan, pertsona kopuru handi baten diskriminazioa eragiten dute; izan ere, pertsona horiek, modu iraunkorrean edo aldi baterako, mugaren bat dute beren mugikortasunean, eta horrek eragotzi egiten die hiri-espaziora iristea eta, ondorioz, gizartratzearen onurak lortzea.

Muga horren adibide argia izan zen Durangoko San Fausto jaietan barraketarako prestatutako eremurako sarbidea. Ez da ulertzen udaleko gobernu-taldeak mugikortasun-arazo desberdinak kontuan hartu ez izana erdiguneko eta belaunaldien arteko eremu horretan mugitzeko. Egun gutxitan, gurgil-aulkian zeuden pertsonak, haurren orgatxoak, mugitzeko arazoak zituzten eta ez zituzten pertsona helduak, haurrak, nerabeak eta abar igaro ziren handik. Ez du ezertarako balio udalak esatea "akatsa" izan zela eta datorren urtean konponduko dela, hori adibide bat baino ez dela izan kontuan hartzen ez badu, eta horrelako egoerak urte osoan zehar gertatzen zaizkigula Durangon: Durangoko Azoka, inauteriak, larunbatetako azoka txikia, baime-nik gabeko ezinduentzako apartakalekuak okupatzea, oinezkoen pasabide irisgarriak jartzea, oztoporik gabeko bozketa-kabinak erraztea hauteskunde-prozesuetan, etab. Ez du ezertarkako balio "akatsa" izan zela eta datorren urterako konponduko dela esateak, kudeatzeko eta antolatzeako orduan kontzientzia hartzen ez badugu eta ikusezina dena ikusarazten ez badugu.

Durangaldea asteen

Punterengo film laburren lehiaketa egingo dute, Katalamixonek antolatuta

ABADIÑO | Punterengo Film Laburren Lehiaketaren laugarren edizioa antolatu du Abadiño Katalamixonek Aisialdi Elkarteak. Azaroaren 18an, 14:00etan, gaia, objektua, lekua eta esaldia emango dizkiete parte hartzaileei, eta hauek 24 ordu izango dituzte euren proposamenak aurkezteko. Lanak katalamixonekintza@gmail.com helbidera bidali beharko dira, azaroaren 19an, 14:00ak baino lehenago.

Atxondoko ikasleen Guraso Elkarteak gaztainak banatuko ditu gaur Apatan

ATXONDO | Gaur arratsaldean, azaroak 17, gaztainerre eguna ospatuko dute Apatamonasterioko plazan. Atxondoko ikasleen Guraso Elkarteak gaztainak banatuko ditu, 18:00etan. Ekimen hau Guraso Elkarteak antolatu du, Atxondoko Udalaren laguntzagaz.

Elorrio Rugby Taldeak berea ez den Gabonetako Loteriako zenbaki bat saldu du, akats baten ondorioz

ELORRIO | Elorrio Rugby Taldeko zuzendaritzak sare sozialen bitartez jakinarazi du arazo bat egon dela Gabonetako loteriaren inprentan. "Hori koloreko partizipazioetan klubari egokitu ez zaion zenbakia dago inprematuta. Norbaitek halakorik balu pasatu dadila errugbi dendatik bueltatzera", azaldu dute. Partizipazio berriak ateratu dituzte, berde kolorekoak, 46.485 zenbakiagaz.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Lizarrako erailketa matxistaren harira:

Lizarratik iritsitako albiste eta susmo txarrekin hasi genuen astea, eta berririk txarrena baieztatu zen asteartean; amak bere semea aitarekin batera desagertuta zegoela salatu ostean, aitak bere buruaz beste egin zuen 7 urteko semea hiltzarekin batera.

Lehenik eta behin, Euskal Herriko Mugimendu Feministatik gure babes eta elkartasun guztia adierazi nahi diegu senide, lagun eta gertukoei. Ez zaudete bakarrik.

Erailketa honekin, 12 dira 2003az geroztik indarkeria matxistak, zehazki indarkeria bikarioak, Euskal Herrian erail dituen haurrak. Eta aurtan, 2023an, indarkeria matxistaren ondorioz gertatutako bosgarren hilketa izan da.

Aski da! Nazkatuta, amorratuta eta haserre gaude! Urteak darmatzagu esanez sistema heteropatriarkal, kapitalista eta arrazistak egituraz sostengatzen duela indarkeria matxista, eta horren azken ondorio lazgarri eta ikusgarriena erailketa dela. Baina guk badakigu indarkeria matxistak hamaika aurpegi dituela eta emakumeok* bizi-tzako alor guztietan jasaten dugula indarkeria hori.

Indarkeria matxistari aurre egiteko, lehen mailako arazo politikotzat hartua izan dadin eskatzen dugu. Egungo jarrera konplizeak alboratu eta bizi garen jendarte antolaketa sexistari aurre egiteko benetako neurriak behingoz har daitezela exijitzen dugu. Gure bizia dago jokoan!

Honekin batera, autodefentsa feministarako deia egiten dugu. Bizitzaren aldeko apustu erradikala egiten dugu eta badakigu antolakuntza eta autodefentsa izango direla gure tresna eraginkorrenak. Feministok erantzuteko prest gaude!

Itziar Berriozabal, Nerea Lersundi eta Argiñe Alacano Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladaren izenean

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Arriko Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

A 25

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIARI



AZAROAK 25



Tratu txarren biktima diren emakumeentzako arreta soziala, psikologikoa eta zerbitzu juridikoa.

946 200 492



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea

“Ondo dago norbanakoek laguntzea, baina beharrezkoa da instituzioek ere laguntzea”

Julene Illarramendiren ama minbiziak jota hil zen berak hogeitaz hamar urteko prozesuan ikasitakoagaz Inurri elkartearen sortu zuen, osasun sistemaren gabeziak betetzeko



Eva Elexpuru eta Julene Illarramendi ama-alabak.

Bai, tabu handia da. Bete egiten da ekuazio bera: minbizi berdin heriotza. Egia esan, geroago eta gehiago berba egiten da gaiari buruz. Hori igarri dut nik, behintzat, amari minbizi detektatu ziotenetik hona. Minbizi oso kontu negatiboekin lotzen da, eta normala da, *putada* bat delako. Baina beldur horietatik tabuak sortzen dira, eta horrek minbiziak eragiten dituen beste mila kontu ere tabu bihurtzen ditu; adibidez, ingurukoak, edo tratamendua bera, informazio falta handia dagoelako. Eta horrek arazoa handiagotu egiten duela esango nuke.

Urteotan jende askok jo izan du zuegan. Zer behar dute, edo zer eskertzen dute?

Inurri alor ugari ikutzen dugu, baina garrantzitsuena akonpainamendua dela ikusi dugu. Gaixoa bakarrik ez sentitzea, eta norbait beragaz egotea. Gu ez gara laguntzaile profesionalak, minbizi bizi edo inguruan bizi izan dutenak baino ez gara, eta ez dugu errezetarik, baina, askotan, hor egotea, ondoan egotea, nahikoa izaten da: bere dudak entzutea, konpartitzea, whatsapppeko mezu soil bati erantzutea; adibidez, "Bihar operatu egingo naute, zer egin dezaket?". Horixe da Inurri. Guk diogun moduan, Inurri tribu bat da, espazio seguru bat eskainiko duen tribua, taburik eta eparirik bakoa. Bizipenak partekatzea, eta minbizi duenari ulertzea eta laguntzea da gure helburua. Hizkuntza berbera erabiltzen dela sentitzeko aukera ere eskaintzen da.

Zein hartu-eman duzue erakundeekin? Badaude beste elkarte batzuk, lan handia egiten dutenak, baina gu ez gara eurekin hainbeste identifikatzen. Inurri nahiko eraldatzailea da, egiten dugun dena feminismoaren ikuspegitik egiten ahalegintzen gara. Izan ere, alde horretatik ikusi genituen gabeziak. Bakoitzak erabaki behar du nondik jo edo zein laguntza eskatu, jakina, baina, egia esan, ez zegoen Inurriren moduko elkarerik. Ez diegu beste erakundeei lekuri kentzen, baina guk egiten dugun honetan sinesten dugu. Instituzioek hainbat gabezia dute, eta, alde horretatik, egurra ematen diegu. Adibidez, gaixoen informazio gabezia izugarria dute. Itzelak dira batzuetan egiten dizkiguten galderak! Askotan esaten diegu ea zelan ez dieten medikuek erantzun galdera horiei. Egundoko gabezia dagoela ikusten dugu. Beharbada, horixe izango da gure elkarte hainbeste haztearen gaioetariko bat. Lasarten hasi ginen, baina egunean emakume berri bi ipintzen dira gugaz hartu-emanetan. Hori asko da. Apur bat gainezka gaude, egoitarik ere ez dugu eta. Laguntzak eskatzen hasi gara, une honetan lagun bi baino ez ga-

biltzalako honetan lanean. Aparteko gure lana ere badugu,aldi berean. Ideia mordoa dugu, baina baliabideak falta zaizkigu.

Hala ere, gauza asko egin duzue; besteak beste, kamisetak, zapiak, saioak eskoletan, 'Tabuen kutxatik oholtzara', eta podcasta ere bai.

Lan martxa frenetikoak dugu. Modu informal batean hasi ginen, baina oso lan txukuna egin dugu orain arte. Metastasia duen pertsona edo 'inurri' batez elkartu ginen, bazkaltzeko, eta berbetan aritu ginen. Bere senarrak esan zuen han esaniko guztiak nonbait gorde beharko lirakeela, informazio baliagarri asko zegoela, eta jendeari interesatuko zitzaioela. Pentsatu genuen aukera ona izan zitekeela podcastean grabatu eta emititzea, gero gura zuenak entzun ahal izateko; azken finean, jende bati erreparoa eman diezaiokie elkartera etortzeak, eta podcasta aukera ona izan daiteke indarra emateko edo galderei

Bakoitzak erabaki behar du norengana jo eta zein laguntza mota eskatu, baina, inork ez du eskaintzen Inurri eskaintzen duena

erantzuteko. Diru laguntza eskatu genuen, eta lortu genuen. Gero, Argia aldizkariaren saria heldu zen. Eta horrek bigarren denboraldia grabatzeko indarra eman digu. Zapien kontua nire amagaitik bururatu zitzaidan. Edozein produkturi 'onkologiko' berba gehituz gero, izugarri garestitzen da; kasu honetan, gainera, iruditzen zitzaidan itsusiak zirela, edo minbizi azpimarratzen zutela, eta, horregaitik, zerbait egitea pentsatu nuen. Hori dela eta, zapi koloretsua ipini genuen martxan. Zapiak koloretsuak dira, kotoizkoak, eta musuak dituzte marratzuta. Berez zapiak badira ere, pareo lez erabili daitezke, gerriko lez, edo buruan ipini daitezke, jakina, baina ez da nabarmen geratzen gaixoentzat dela. Gaixorik ez daudenek ere erosi dezakete, eta gaixorik dagoenari eman. Truke hori babesa emateko modu bat da. Badaude laguntzeko beste modu batzuk ere; adibidez, bazkide izatea. Onurak ditu bazkidearentzat, eta guretzat laguntza izugarria da. Bazkide dezente egin dugu urteotan. *Merchandisinga* ere badugu, zaindua gainera. Tokiko produktuak dira, bertako sortzaileek eginak. Horrez gainera, gure ekintzetara etortzea ere bada elkarte babesteko modu bat. Azken finean, diruz bakarrik ez, bakoitzak ahal duen moduan lagundu dezake. Denen laguntza da ondo etorria, baina erakundek lagundu beharko lukete, batez ere.

AZAROAK 25 EGITARUA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 12

Bakarrizketa umoretsua (euskaraz): **MAGMA MIA!** (Beatriz Egizabal) "Haserre nago, sutan nago, irakiten nago..."

20:00etan Berrizko Kultur Etxean
6€ (bazkideak 4€)

AZAROAK 13-17

(astelehenerik-ostiralera)
Tailerra (euskaraz, gaztelaniaz, arabiarrez, frantsesez): **EHULEAK INDARKERIA SEXISTAREN KONTRA** - Indarkeria sexistako korapiloak askatzen hasiko gara sororitatearen ehurtzen dugun bitartean

16:30etik -18:30era
Olakueta Etxea (4. etxea)
- KULTURARTEKO JARDUERA herriari irekia. Tea eta pastak. Boluntarioak behar dira akorratza eta puntua irakasteko.

Antolatzaileak: Olakueta Etxea + Orekatuz.EDE, Emakume Migratuak, Berrizko Udala
Haurtzaindegi zerbitzua

AZAROAK 16 eta 17

Tailerra (gaztelaniaz): **INDARKERIA MATXISTA GAITZESTEKO PANKARTA KOLEKTIBOA** (FEMGARABAT Kontakizun grafiko feminista)

Kultur Etxean. 3. solairua
I. saioa: 16a, osteguna,
17:30etik-20:30era

II. Saioa: 17a, ostirala,
16:30etik-20:30era
Doan

Informazioa: Berdintasun saila

berdintasuna@berriz.eus

946 82 40 36

AZAROAK 23

Kontzertua (euskaraz): **ALARMA MOREA** Euskal-runba egiten duten emakume gazte feministen taldea

20:00etan Berrizko Kultur Etxean
6€ (bazkideak 4€)

AZAROAK 25

18:00etan Giza-Katea herrian zehar
Deitzaileak: Gure Izarrak, Berrizko Emakume Migratuak, Azeri Gorriak, Enai, Hiltegitze

Informazio gehiago, antolatzaileen komunikazio kanaletan
Berrizko Udala deialdira batuko da

Herritar orori dei egiten diogu ekintzan parte har dezan!



ABENDUAK 3

(EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA)
Bertso saio solidario musikatua (euskaraz): **TABUEN KUTXATIK OHOLTZARA** (Inurri Elkarteak)
Bertsolariak: Miren Amuriza, Alaia Martin, Oihana Bartra eta Iruri Altzerreka
Gai-jartzailea: Amaia Agirre

18:00etan Berrizko Kultur Etxean
8€ (bazkideak 6€)

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik minbiziari buruzko dibulgazio lana eta, nagusiki, akonpainamendua eskaintzen duen elkarte da Inurri. Lasarte-Orian sortu zuen Julene Illarramendik, gaia sozialki normalizatzeko eta minbiziaren inguruko tabuak desagerrarazteko. Hainbat ekitaldi antolatu dute urteotan; besteak beste, abenduaren 3an Berrizen egingo duten 'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio solidarioa.

Inurri gabezia batzuk betetzeko sortu zenuten.

Inurri istorio pertsonal batetik sortu zen. Nire ama minbiziak jota hil zen, orain sei urte. Bularreko minbizi metastasikoa zuen. Nik hamar urte nituenean gaixotu zen. Hamar urteko prozesu baten ondoren, nik hogeitaz hamar urte nituela hil zen. Esaten den moduan, hemen jarraitzen badu, pertsona ez da hiltzen, eta nik gogoan nuen zerbait egiteko, amagaitik ere bai. Berba egin gura nuen hamar urteko prozesu horretan izandako gabeziei buruz. Besteak beste, bularreko minbiziaren kolore arrosa ez zetozen bat amagaz, ezta nigaz eta beste emakume batzuekin ere. Ondorio horretara heldu ginen gure artean berba egin eta gero. Eta, neurri batean, ondorio horretatik sortu zen Inurri.

Tabua da oraindino minbiziak?



Minbizia ardatz duen 'Tabuen kutxatik oholtzara' bertso saio solidarioa Berrizko Kultur Etxean izango da

Miren Amurizak, Iruri Altzerrekak, Alaia Martinek eta Oihana Bartrak kantatuko dute; saioa abenduaren 3an izango da

BERRIZ • A. M.

Julene Illarramendiren esanetan, Inurrik hasieratik eduki ditu ideia desberdinak, eta, egin ahala, berriak pentsatzen eta gauzatzen joan dira. Horrela,

'Tabuaren kutxatik oholtzara' bertso saio solidarioak antolatzeari ekin zioten. Elkartasun ekimen honek berezitasun bat du: gaiak minbizia dutenek, lehenago izan dutenek, edo

gaixoen kide edo laguntzaile direnek proposaturikoak dira, gero Amaia Agirre gai jartzai-leak plazaratzen dituenak. Berrizen abenduaren 3an egingo dute saioa, eta bertan Miren

Amuriza berriztarrak, Iruri Altzerreka garaitarrak, Alaia Martinek eta Oihana Bartrak kantatuko dute. "Ezin da berbaz azaldu saio hauetan bizitzen dena, esperientzia desberdin bat

bertso saio bakarra egitea zen asmoa, eta urtarrilean egin genuen, Donostian, Doka aretoan. Sarrerak zazpi minutuan saldu ziren, eta jendea gogotsu geratu zen", esan du Illarramendik.

Lehehengoa Dokan

Saio hori egin eta gero, beste hainbat egin dituzte, "hogei inguru", azaldu du gipuzkoarrak. Boluntarioen eta udalen lana goraipatu du, eta eskerrak eman dizie horiei. Baina uste du instituzioetatik gehiago egin daitekeela: "Norbanakoek laguntzea oso garrantzitsua da, eta bakoitzak ahal duena eginez lagundu dezake. Baina garrantzitsua da laguntza hori erakundeetatik ere ematea". Berriko Kultur Etxeko emanaldirako sarrerak 8 euroan daude salgai.

Berrizko saioan lau emakume izatea ez da kasualitatea. "Minbiziak inposatzen duen isiltasun eta estigmari emakume izateari loturikoa gainjartzen zaio. Euskal kulturaren eremuak, tamalez, emakume ahotsaren espazio eta prestigio falta nabarmena izan da historikoki, eta gure proiektuak egoera horretan ere eragile izan gura du", azaldu du Inurritik.



'Tabuaren kutxatik oholtzara'.

Saio bakarra egiteko helburuagaz antolatu zuten arren, ia hogeit hamar saio antolatu dituzte guztira


dira. Gora eta behera eramaten zaituzten bidaiak dira, hustu eta bete egiten zaituztenak. Umorezko gaiak daude, barrea eragiten dutenak, baina badaude gogorrak ere, negarra eragiten dutenak. Oso saio bereziak dira", azaldu du Illarramendik.

2022an ekin zion Inurri elkarteak ekimen hau prestatzeari, Ane Labaka bertsolariaren laguntzagaz. "Elkartasunezko

Zal di bar

AZAROAK 25

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA**



ASTE OSOAN ZEHAR

- Liburutegian, emakumeenganako indarkeriarekin zerikusia duten liburuak.

AZAROAK 24

- 18:00etan liburutegian "Volar" dokumentalaren emanaldia eta berbaldia Bizitu elkarteekin.
- Eskolako umeei egindako borobil morea ikusgai eskolan.

AZAROAK 25

- Eskolako umeei egindako borobil morea ikusgai udaletxeko plazan.
- 13:00etan Udaletxeko plazan, elkarretaratzea, Dominika talde feministak antolatuta.



Zaldibar
Elizateko
Udala

“Zaintza baldintza txarretan eta aitortu barik dago, ikusezin bihurtuta, arrazializatuta eta prekarizatuta”

Mugimendu Feministak greba feminista orokorrera deitu du azaroaren 30erako. Durangaldean ere mobilizazioak aurreikusi dituzte

GREBA A30 • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko Mugimendu Feminista buru-belarri dabil azaroaren 30erako deituriko greba feminista orokorra antolatzen. Zaintza deialdiaren erdigunean ipini dute. Zaintza zerbitzuak "gutzit pribatizatuta" daudela salatu dute, eta erakunde publikoek emakumeen gain uzten dituztela zaintza lanak.

Zeintzuk gabezia ditu zaintza sistematik?

Hasteko, ez dago zaintza sistema publiko bat. Zaintza lanak guztiz feminizatuta eta pribatizatuta daude, merkatuaren eskuetan. Merkatura heltzeko aukerarik ez duenak familiaren eskuetan uzten du, eta, ondorioz, emakumearen eskuetan. Zaintzak bizitza osoan zehar eskubide bat izan behar direla aldarrikatzen dugu, eta sistema publiko bat behar dugula eskubide hori bermatzeko. Sistema publiko batek eutsi diezaioke bakarrik eskubide horri, eta, aldi berean, inguru edo komunitate batek. Zaintza lanen egoera zelakoa den aztertzeaz gainera, proposamena planteatzen dugu.

Praktikan zeintzuk egoera planteatzen dira?

Etxeko langileek ez dute lan esku-biderik. Oso baldintza prekarioetan bizi dira. Era berean, familia askotan, emakumeen eskuetan



Durangaldeko Mugimendu Feministako kideak.

Emakume migratuen kontrako indarkeria matxistarik ez!

Emakume migratueganako Indarkeria matxistari buruzko hitzaldi zikloa

DOAN / 18:00 / ITURRI KULTUR ETXEA



AZAROAK 20

Emakume migratuen aurka egiten diren indarkeria matxistak.

Jeanne-Rolande Dacouagna Minkette

Biltzen, Integrazioarako eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua.



AZAROAK 21

Emakume migratuen aurka erabiltzen diren arrazakeria, estereotipoak eta aurreiritziak.

Maider Query Avaristo.

Arazakeriari buruzko hausnarketa-taldean dinamizatzailea. Emagin, Formazio eta Ikerketa Feminista Elkarte.



AZAROAK 22

Etxeko eta zaintzaren eremuko emakume migratu langileen kontrako indarkeriak.

Silvia Ismara Zúniga Munguía

Emakume migratuen talde-dinamizatzaile eta laguntzailea Sortzen Aholkularitzan.

**AZAROAK 25
MOBILIZAZIOA:
INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO HERRIA**



**ASANBLADA FEMINISTA:
13:00etan, herriko plazan.**



Gehiago jakiteko



geratzen da. Ulertzen dugu zaintza ez dela pardedak aldatzea, gure bizitzako arlo guztiak zeharkatzen dituen zerbaite baina. Denean dago, eta denean baldintza txarretan eta aitortu barik; ikusezin bihurtuta, arrazializatuta, prekarizatuta... Langileen baldintzak txarrak dira, eta, beraz, zaintza hori jasotzen duen pertsonaren egoera ere ez da duina, ezin delako bermatu. Zaharren egoitzetako egoeraren berri jasotzen gabiltza eta zaintzaileek oso denbora gutxi izaten dute egoiliar bakoitzagaz egoteko. Esaten digutenez, Durangoko erresidentzian orain ez dago igogailurik, eta beharginak behartuta daude materiala alde batetik bestera oinez eramatera. Oso baldintza eskasak daude eta, pribatizatu den momentuan, ez da horretan inbertitzen. Justizia eta duintasuna bermatu beharrean, etekinaren alde egiten da, enpresa pribatuen mesedetan. Gorabide ere greban egon da.



Etterik etxeko langile batzuek zaintza eskubideak aldarrikatzeko protesta egin zuten Zornotzan, joan zen martxoaren 8an.

Badago jendea ezingo dena batu. Eurei ere aukera emango diegu moduren baten grebara atxikitzen direla, baina ezin direla batu adierazteko

Zelan doa grebaren prestaketa?

Durungaldeko markoan, martxoaren 8an hasi ginen lanean. Orain, data hurreratzan dabilela igartzen da. Alde batetik, nekaztuta gaude, baina oso gogotsu bestetik. Hauxe da egiteko momentua. Sentsazioa dugu gu tinko gabiltzala honetan, baina sektore batzuetara ez dela heldu. Buru-belarri gabiltza lanean, denok gaudela deituta ikusarazteko. Batzuk ez dira interpelatuta sentitu, eta zaintza denori dagokigu. Momentu honetan, geruza denetara heldu guran gabiltza, eta bestetik, eguna bera antolatzen.

Erronka bat da?

Ematen duenez, lehenengo aldia da zaintzaren gaia erdigunean ipintzen dena eta horren bueltan greba deialdi orokor bat egiten dena gizonak ere interpelatuta. Ez bakarrik elkartasuna adierazteko zaintza langileei. Zaintza eskubidea denontzat behar dugu eta horrek eskubidea eta konpromisoa eskatzen ditu, denon partetik. Alde horretatik, erronka bat da jendea interpelatuta sentitzea. Emakumeok askotan atera dugu gai hau. Aurreko M8ko grebetan, Mugimenduk Feministak mahai gainean ipini zuen gai hau. Denok sentitu behar dugu beharizan hori gai honen inguruan borrokatzeko.

Askotan ez da ikusten herri mugimenduetan egiten den lana. Lan ikusezin hori zelan egin duzue?

Bakoitzak bere herrian egin du lan hori. Azkenengo asteetan, herrietako eragileekin batzen aritu gara. Barikuan bilera irekia egin genuen, eta denak egon ziren deituta. Atxikimendua eta greban parte hartzeko konpromisoa eskatu genizkien. Orain, dendetara, eskoletara, tabernetara, industrialdeetara eta abarretara joango gara gaia azaltzera, ahalik eta inplikaziorik handiena lortzeko.

Zelako erantzuna jaso duzue?

Jende askok ez du jakin greba deialdia dagoela. Beste batzuek pentsatu dute emakumeen greba dela. Denerik ikusi dugu. Beste kasu batzuetan oso motibatuta egon dira, greban parte hartzeko prest.

Durangoren kasuan, harrera ona egon da. Bakoitzak egunerokotasunean egiten duen inurri lana ere azpimarratzekoa da, auzokideagaz edo lankideagaz. Edozein momentu aprobetxatzen dugu gai horri buruz berba egiteko.

Zer antolatzen zabilzate?

Grebara nortzuk batu ez diren ikustera joango gara goizean, eta nortzuk ezin izan diren batu. Hori ere bada greba honetan kontuan hartuko dugun puntutariko bat. Badago jendea ezingo dena batu, eta eurengana ere joango gara. Eurei ere aukera emango diegu moduren batean grebara atxikitzen direla baina ezin direla batu adierazteko. Horiei elkartasun piketeak deitu diegu.

Berba egiten duzue Zumaiako agerrialdaren harira?

Hau planteatu genuen momentuan, bagenekien zaintza espa-

rruan grebara deitzeak eztabaida ekarri zezakeela. Greba egitea pribilegio bat izan daiteke batzuek ez daukatelako aukerarik. Greba egitea eskubide bat da, baina batzuek eskubide hori ez duten neurrian, pribilegio batetik berba egiten dugu. Hala ere, oso presente ditugu greba egin ezin dutenak baina egunik egun aurpegia ematen dutenak. Bizitzari eusten diona zaintza bada, argi dago ezin dela gelditu. Besokoak banatuko dizkiegu greban parte hartu ezin dutenei baina grebagaz bat egiten dutenei.

Etxeko langileek ez dute lan eskubiderik. Oso baldintza prekarioetan bizi dira. Familia askotan, emakumeen esku geratzen da

Prestatu duzue egitaraurik herririk herri?

Goizean piketeetan, eguerdian mobilizazioaren batean, eta gero bazkalorduan batuko gara. Egun osoan zehar egongo gara kalean. Arratsaldean ere egingo ditugu mobilizazioak. Bizkaian mobilizazio handi bat egongo da Bilbon, eta beste bat Durangon. Oraindino erabakitzeko daukagu ea eskualdean Durangon zentralizatuko dugun ala beste herri batzuetan ere egingo den.

Abenduaren 1etik aurrera, zein bide urratzea gura zenukete? Zein oinarri ipiniko du grebak?

Greba egunean zuzenean instituzioak interpelatuko ditugu, eta herri akordioan baturiko aldarrikapenekin aldaketak egiteko eskatuko deigu. Fase bat eratzen ahaleginduko gara. Herrietan sor-

tu diren espazioetan ere pentsatu beharko da zer egin, badagoelako zeren alde borrokatu, zer landu eta zer sortu.

Zaintza langileei aitortza berezi bat egingo zaie goizean, prozesuaren hasieratik daudelako parte hartzen. Zornotzan, esate baterako, etxerik etxeko langileak antolatuta daude. Euskal Herrian ere antolatuta daude eta eurekin

elkarlanean pentsatu da prozesua eta erabaki greba egitea, nahiz eta batzuek jakin ezingo dutela greba egin. Historikoki daramaten borroka hor dago.

Zein mezuzag amaitu gura duzue?

Deialdietara, bileretara, atarietara, kartelak ipintzera deitu gura dugu jendea. Kalera irtetera eta mezua zabaltzera, bakoitzak bere inguruan.

Iurreta 2023

Azaroak 25

AZAROAK 20

18:00 Ibarretxe Kultur Etxea

KULTURARTEKO IKUSPEGIA EMAKUMEEKIKO /PERTSONA MIGRATUEKIKO HARREMANAK

INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIO SAIOA (bertako emakumei zuzendua)

BILTZEN - GIZARTERATZA ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN EUSKAL ZERBITZUA

Izen-ematea azaroaren 15erarte

Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna

AZAROAK 24

Pegatinak eta puntu moreen banaketa

Liburutegian interesgunea

Ibarretxe Kultur Etxea

18:00 BELDUR BARIK LEHIAKETA 2023 BIDEAK PROJEKTATU ETA SARI BANAKETA

19:00 HELDUEN IPUIN KONTALARIA (euskaraz) **MAITE FRANKO**

"Emakumeak maite zituzten herria"

AZAROAK 23

18:00 Ibarretxe Kultur Etxea

ZINEFORUM ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA

AL DESCUBIERTO (2022)

ABENDUAK 16

10:00 Goiuria Kultur Gunea

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Eguneroko bizitzan pairatzen diren eraso matxistei aurre egiteko estrategiak LANTZEA

Izen-ematea abenduaren 12zarte

AZAROAK 25

12:30etan Askondo

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA

Herriko elkartei eta norbanakoei irakurketan parte hartzeko gonbidapena

Ondoren, **MANIFESTAZIOA**

Ondoren, **HERRITARREN SORKUNTZA IRAKURKETAK/AHOZKO ADIERAZPENAK/COLLAJE**

Jarraian **MOKADUTXOA**

ARGIBIDE GEHIAGO

Ibarretxe Kultur etxea

gizarte-ongizate@iurreta.eus edo Tel: 94 621 53 72



buru-hauste zekarrenik. Kanpotik barrutik baino zati bat errazagoa ematen du, baina, tira, ea zelan irteten duen.

Eta zer dela-eta animatu zara lasterketa antolatzera?

A.M.: Orain arte, taldean Sonia egon da presidente karguan, eta aurten Bikanek erreleboa hartu eta Eneko Lambarri eta biok ere zuzendaritzan sartu gara. Beraz, ardurak hartzea egokitu zaigu, eta denean ekitea.

S.O.: Aurten aldatu egin dugu zuzendaritza taldea, eta gazteagoak sartu dira. Lehengook ez dugu dena bertan behera utziko, baina alde batera egin eta lekua utziko diegu atzetik datozenei. Zeregin asko dute orain esku artean; horietariko bat Emakumeen Lasterketa, eta Ainarak ederto eutsi dio erronkari.

Zuk, Sonia, zenbat urte egin dituzu Durango Kirol Taldeko presidente karguan?

S.O.: Ia zortzi urte, guztira. Justu orain dela zortzi urte bueltatu nintzen atletismora, eta etorri eta berehala izendatu ninduten presidente. Taldeari lotuta jarraituko dut, baina ez dut orain arteko ardura izango. Lekua utzi behar zaie gazteei, haize berria beti datorrelako ondo. Beste egiteko modu bat dute, beste ikusker bat. Eta hori oso ona da.

Zelako esperientzia izan da?

S.O.: Oso ona. Jende mordo eza-gutu dut eta asko ikasi dut atletismoaren munduari buruz. Azken batean, atleta baino ez zarenean, jorratzen duzun atala ezagutzen duzu, baina ez beste dena. Eta benetan esperientzia ederra izan da.

Eta zuretzat, Aina, zelako esperientzia ari da izaten?

A.M.: Hasieran, beldur apur bategaz sartu nintzen, baina oso gogotsu nabil taldean. Soniak esan duen moduan, ikasteko balio badigu, bikain.

Eta hemen duzue lehenengo erronka, Emakumeen Lasterketa.

A.M.: Bai. Lasterketako ibilbideari dagokionez, aurreko urteetako bera izango da. Eta aurreko edizioetan lez, proba bi izango ditugu.

S.O.: 17:00etan ibilbide testimoniala izango dugu. Proba laburra izango da, herritar guztiei zuzenduta dagoena, baita umeei ere. Proba hau amaiturikoan, Emakumeen Lasterketa izango dugu. Bertan, emakumeek baino ezingo dute parte hartu, eta bost kilometro egingo dituzte korrika. Lasterketa Durangoko Ezkurdi plazan hasi eta amaituko da.

A.M.: Proba laburra 1,6 kilometrokoa izango da.

Zergaitik animatu beharko lirateke emakumeak lasterketan parte hartzea?

“Emakumeen Lasterketan giro bikaina egoten da, egun berezia eta oso polita da”

Durango Kirol Taldeak VI. Emakumeen Lasterketa antolatu du. Azaroaren 25ean izango da, 17:00etan

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtebeteko etenaldiaren ondoren, bueltan da Durangon Emakumeen Lasterketa. Eta bueltan dira baita ere Durango Kirol Taldeko kideak, indarberrituta. Beste behin ere helburu argi batez antolatu dute proba: emakumeentzako lasterketa bat izatea eta azaroaren 25eko aldarriak, hau da, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako aldarriak lau haizeetara zabaltzea. Proba bi izango dira azaroaren 25ean Durangon. Lehenengo 17:00etan hasiko da eta 1,6 kilometroko ibilbide testimoniala izango du. Hau amaitutakoan, Emakumeen Lasterketa hasiko da, 5 kilometroko proba. Biak Ezkurdi hasi eta amaituko

dira. Proba bi hauen inguruan berba egiteko, Durango Kirol Taldeko Sonia Oveja Salazarregaz (Durango, 1968) eta Aina Mugartegi Solozabalegaz (Markiña, 2001) batu da ANBOTO.

Azaroaren 25erako VI. Emakumeen Lasterketa antolatu duzue. Lehenengo eta behin, zelan doa prestaketa lana?

Sonia Oveja: Aurten, batez ere Aina ibili da lasterketa prestatzen, Joseba Bikandiren laguntzagaz. Eta lan hori aitortu behar zaio Ainarari.

Aina Mugartegi: Lehenengo antolatzen dut honelako zerbait eta ez nuen uste horrenbesteko

AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 15	AZAROAK 17	AZAROAK 24
<p>¿LA FIESTA ERA ESTO? SÍ, LA FIESTA ERA ESTO</p> <p>Jaiari eta aisialdian gertatzen den indarkeria sexualari buruzko ikerketaren aurkezpena</p> <p>Nerea Barjola Gaztelera Errota Kultur Etxean 18:00</p>	<p>“LOA LOA, LAGUNA”</p> <p>Performance musikatua</p> <p>Maidier Lasa Santamaria Euskaraz Errota Kultur Etxean 20:30</p>	<p>“BIOLENTZIA MATXISTEN AURKAKO 24 ORDUKO KONPONKETA” Kale-ikusketaz</p> <p>Las Kapribos Euskaraz Pino plaza 18:00</p>
AZAROAK 25	ABENDUAK 1	
<p>EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA</p> <p>Mobilizazioa</p> <p>Abadiñoko udaletik dei egiten diezuegu parte har diezazuen Abadiñoko Mugimendu Feministak antolatutako mobilizazioetan.</p>	<p>“EMKUMEAK”</p> <p>Antzezlan. Euskaraldiko programazioaren zatia</p> <p>Zelako Kultur Ideiak Euskaraz Errota Kultur Etxea 19:00</p>	

A.M.: Orain arte, maila ezberdineko jendeak parte hartu du lasterketan. Egon dira emakumeak lehiatzera etorri direnak, baina baita lagunekin ondo pasatzera irten dutenak ere. Plan diferente bat egiteko aukera eskaintzen du. Emakumeen Lasterketan giro bikaina egoten da, egun berezia eta oso polita izaten da. Musika egoten da eta kamisetak ere banatzen zaizkie parte hartzaileei.

S.O.: Oso giro polita egoten da eta denentzat dago lekua. Aurreko batean galdetu ziguten ea baze goen aukerarik ibilbidea oinez egiteko. Egin daiteke, jakina, baina luze ere egin daiteke, eta aspertzeko arriskua ere badago. Azken batean, lasterketa bat da, baina edozeinek parte hartu dezakeena. Nahikoa da korrika apur bat egitea. Gainera, egun berezia da, Azaroak 25. Eta momentu aproposa da egun horretako aldarrikapenak lau haizeetara zabaltzeko.

Zelan dago osasunez Durango Kirol Taldea?

S.O.: Orokorrean, taldea oso ondo dagoela esan daiteke. Eta, gainera, neska gazteen taldea geroago eta indar gehiago hartzen dabil. Hori oso pozgarria da.

A.M.: Entrenatzaileek beti diote harrobia badagoela egon. Eta jen-

deak gogoia ipiniz gero eta lagun-tzak jasoz gero, mutilen mailako talde bat atera daitekeela esaten digute. Mutilak Espainiako lehenengo mailan daude.

S.O.: Eta neskak ere maila horretara heltzea da gure asmoa. Gaur egun, neskak Espainiako Bigarren Mailan daude, baina lortu daiteke Lehenengo Mailan egotea. Bestalde, eskolan ere

Niretzat erronka bat bezala izan da. Ideia pixkat ausarta zen, baina hori egiteko gogoekin nengoen

ume asko dugu. Horiek krosek lasterketetan dabilta parte hartzen. Eta mendiko taldeak ere baditugu, bai neskena eta baita mutilena ere. Hauek ere Lehenengo Mailan daude estatuko lasterketetan. Horiez gainera, master edo beteranoo taldea ere badugu. Hemen, emakumeok Lehenengo Mailan gaude, eta gizonezkoak 'floyotxoago' ditugu. Orokorrean, Durangoren moduko herri batentzat maila itzela dugu.



Aurreko edizio bateko argazkia.

Orainurte batzuk, Taldeko hainbat kidek talde bat sortu zenuten emakumeek korrika egiten irteteko. Talde horrek bizirik jarraitzen du?

S.O.: Bai, martxan jarraitzen du. Talde horrek gorabeherak izan ditu; batzuetan, emakume gehiago batu gara, beste batzuetan gutxiago, baina taldea martxan dabil, batez ere Goretti Etxegibelen eskutik. Whatsapp talde bat dugu, berrogeita hamar bat laguneko, baina gaur egun hamar bat lagun etortzen dira.

Norbaitek parte hartu gura balu, zer egin beharko luke?

S.O.: Edozein etorri daiteke, eta, gainera, inongo konpromisorik barik. Aste batean etorri zaitezkeela eta hurrengoan ez, ba, ez dago inongo arazorik. Gainera, talde txikiak egiten ditugu, mailaren arabera. Horrez gainera, ariketa guztiak egokitu egiten ditugu. Beraz, etorri gura duenak zabalik ditu ateak. Eguetan batzen gara, 18:30ean, atletismo pistan.

Beste ezer gehitu gurako zenukete elkarrizketa honetan?

S.O.: Bai, hemendik eskerrak eman gura dizkiegu Emakumeen Lasterketa babestu duten denei. Durangoko hainbat enpresak konpromisoa hartu dute gure lasterketari laguntzeko, eta hori ezinbestekoa da guretzat. Ez daukagu inoren babes zuzenik proba hau antolatzeko, eta, beraz, herriko enpresa hauen laguntasuna ezinbestekoa izan dela azpimarratu nahiko genuke.

2023ko AZAROAK 25

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 11 eta 18

Ikastaroa
"Konektatuta zaude eta ez didazu erantzuten".
(Euskaraz)

15-18 urte bitarteko neskontzako

10:00-17:00 Andragunean, Lariz Dorrea, 2.
Izen-ematea:
Andragunea – andragunea@durango.eus
94 465 70 92

Azaroak 23

Indarkeria matxistaren kontrako 12-30 urte bitarteko gazteentzako II Lehiaketaren sari banaketa

Lehiaketan parte hartzeko:
andereak@hotmail.com
Instagram: @andereakdurango
17:30 Andragunean. Lariz Dorrea, 2.

Antolatzailea:
Andereak Indarkeria matxistaren kontrako elkarteak.

Azaroak 24

Giza katea Alde Zaharretik.

Durangoko ikastetxeetako ikasleen parte-hartzearekin.

Kontzertua eta A25eko abestia taldean, Alarma Morea-rekin batera: "Ez beti da ez"

11:30 Udaletxe plazan.

Azaroak 25

Adierazpen instituzionala eta lore-eskaintza

Ordua: 13:00
Lekua: Eraildako emakumeak oroitzeko gunea, Ambrosio Meabe plaza.

Mugimendu feministak antolatutako ekitaldiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, adi deialdiei eta jarraitu sare sozialak

VI. Emakumeen lasterketa. Durango Kirol Taldea. Ezkurdi plazan.

17:00 Ibilbide testimoniala. Jarraian, Emakumeen lasterketa 5 km.
www.kirolprobak.com

Emakumeen_lasterketa
@emakumeenlasterketa

Azaroak 26

Antzerkia NEVENKA. Histrion Teatro.

Ordua: 19:00
Lekua: SAKG. Sanagustinalde, 12
Sarrerak: 10€

Ondoren, konpainiarekin solasaldia

2023 Beldur Barik Lehiaketa:
info www.beldurbarik.eus

Abenduak 1

Liburu aurkezpena
"Autodefensa Feminista. Más allá de decir no".
Maitena Monroy.
18:30 Andragunean. Lariz Dorrea, 2.

Abenduak 14

Ane Lindane "Hasta la potxola me tenéis" liburuaren egilearekin topaketa

Ordua: 19:00
Lekua: Andragunea.

*Liburua salgai jada Durangoko liburu-dendetan



**Mentxu
Ramilo Araujo**

WikiEmakumeak
proiektuko sustatzailea

GASTEIZ | 1978

ALEA

“WikiEmakumeak proiektuaren barruan eginiko 5.500 artikuluetatik 4.300 Durangoko taldeak egin ditu”

WikiEmakumeak proiektuko sortzaile Mentxu Ramiloren esanetan, Durangokoa da talderik "emankorrena"

hainbat lagunek elkarregaz kantatzen dutena.

Dokumentala Zinebin aurkezteko gonbidapena sorpresa izan da?

Bai, eta hain lan profesionalen artean gurea egoteak poz itzela eman digu. Kariño eta dedikazio handiz eginiko lana da, baina baita modu boluntarioan ere, gure filosofiari jarraituta. Dokumental artanala da, proiektuan daudenen edo aritu direnen lana aintzatetsi eta eskertu gura duena. Proiektura batzeko gonbidapen bat ere izan gura du.

Zu zeu zelan sartu zinen wikipediaren munduan?

Behin, wikipediako sarrera bat idatzi nuen eta denbora gutxira ezabatu egin zidaten. Ez zituen arauak betetzen. Hasieran asko haserretu nintzen, baina apurka ulertu nuen joko arauak zeudela eta haiei jarraitu behar niela. Espainiako Wikimediagaz hartu-emanetan ipini nintzen eta galdetu nien ea bazuten inor Gasteizen tailer bat emateko. Horrela hasi nintzen. Gerora, artikuluen estandarra zaintzeko eta artikulua ezabatzeko ardura dutenak ezagutu ditudanean, egiten duten lanaren garrantziaz jabetu naiz.

Jende askori niri gertatu zitzaizkidan gertatzen zaio: ez ditu arauak ezagutzen. Esaterako, jende asko bere buruari edo lan egiten duen enpresari buruz idatzi guran hurreztatzen da wikipediara. Baina hori wikipediako oinarritzko arau baten kontra doa: interes-gatazka. Bere bikotekideari sorpresa bat emateko hari buruz idatzi genezan eskatzeko ere deitu izan digute inoiz.

Formakuntza handia behar da arauak ezagutzeko?

Batzuek gidaliburua irakurri eta erraz barneratzen dute informazioa. Beste batzuek, ni neu barne, bidean lagunduko dien norbait behar dute, azalpenak emango dizkien norbait. Joan zen asteburuan, Salamancako jardunaldi batzuetan, hainbat lekutako jendea

batu eta horri buruz berbetan ibili ginen. Hau da, hain teknologoak ez garenontzat oso garrantzitsuak dirrela taldeak eta batzeko espazioak sortzea. Gasteizen hilean behin batzen gara, eta Durangon astean behin. Azkenean, ikaste prozesu bat eta entrenamendua behar dira. Batzuek esaten didate: "Tira, ezin da hain gaxa izan wikipedian artikulatu bat idaztea". "Bada, errazagoa da txarto eginda dagoen bat ezabatzea", erantzuten diet. Edonor da kapaz wikipedian idazteko, baina jakintza bat eta entrenamendua behar ditu.

Dokumentalak proiektuan dauden edo egon direnen lana aintzatetsi gura du. Proiektura batzeko gonbidapen bat ere bada

Noiz sortu zen WikiEmakumeak proiektua?

2015ean, Espainiako Wikimediatik tailer bat ematera etorri ziren Gasteizera. Liburu batean jasota zeuden gasteiztar emakumeen artikulua sortu genituen wikipediarako. Liburua egin zuten historialari biei baimena eskatu genien euren testuak erabiltzeko, eta baietz esan ziguten. Lau orduan 30 artikulua sortu genituen euskaraz, eta beste hainbeste gaztelaniaz. Esperientzia pozgarria eta aberasgarria izan zen, eta jarraipena eman behar geniola pentsatu genuen. Gasteizen, Leioan, Etxebarrin... batzarrak egiten hasi ginen. Euretariko batera Marisa Barrena etorri zen eta horixe izan zen Durangoko taldearen sorburua.

Zelakoa da Durangoko taldea?

Durangokoa talderik emankorrena da. Fenomeno batzuk dira. WikiEmakumeak proiektuaren barruan

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 13, astelehena

Haurtzaroan sexu abusuen sentsibilizazioa

Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 16:30-18:30
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 19, igandea

KLOWN

Antzeziana: Gerbera luchadora

Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 12:30 / Hizkuntza: Gaztelera
Gazte eta helduentzat
Antolatzailea: Udala

Azaroak 24, ostirala

Kontzentrazioa

12:00etan frontoiko aldapan
Eskolako umeen leloak eta amaitzeko
"Indarkeriaren kontrako abestia"
abestuko da
Antolatzailea: Berdintasun Kontseilua

Genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazio tailerra eta eskulan tailerra azaroaren 25a aldarrikatzeko

Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 16:30-18:30
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

Azaroak 26, igandea

III. Film laburren jaialdia

Tokia: Kontzejuzarra
Ordua: 12:15-14:00
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarte

WIKIEMAKUMEAK • JOSEBA DERTEANO

Asteon 'WikiEmakumeak DONKumental KORALboratiboa' izeneko dokumentala eman dute Bilboko Zinebi jaialdian. Ikus-entzuneakoak wikipedian emakumei buruzko euskarazko edukia handitzeko lanean dabilzaten historia errepatzen du. Gaur egungo editoreetatik hasita, atzera begirako bidea egiten du, sorbururaino. Eta helmugan, hau da, sorburuan, Mentxu Ramilo dago, berak ipiniriko hazitik loratu delako ondoren etorri den guztia. Politologoa, zientzia politikoan doktorea eta WikiEmakumeak proiektuko sustatzailea ez ezik, Wikimedia erakundeko Espainiako presidentordea ere bada gaur egun.

Zelan sortu eta gauzatu da dokumentala egiteko proiektua?

Josi Sierraren ideia izan da. Urteak daramatza gure topaketetan parte hartzen, eta, behin, WikiEmakumeak taldearen historia kontatzeko dokumentalaren ideia proposatu zigun. Genealogia hori eraikitzearen ideia interesgarria iruditu zitzaidan: oraintsu hasi diren editoreetatik hasi eta sorbururaino heldu arte, bidean hainbat gai jorrotzen delarik: artikulua sortzeko prozesua eta aurkitzen diren zailtasunak, bizitzako esperientziak... Bide osoa hari batek lotzen du. Abesti bat da hari hori, azkenean

5.500 artikulua egin dira guztira, eta eurretari 4.300 bat Durangon egin dituzte. Zenbateko osoaren %77. Eta seguru datu hauek zahar-
kituta daudela, zeren eta astero idazten dituzte artikulua.

2016tik hona WikiEmakumeak herririk herri zabaltzeko lana nekagarria izan da?

Niretzat guztiz asegarria izan da. Joaten garen toki bakoitzean pertsona gutxi batzuei, bakar bati bada ere, proiekturako interesa pizteko gai bagara, ni asetuta geratzen naiz. Gero pertsona horrek beste bati piztuko dio interesa eta proiektua modu horretara doa hazten apurka-apurka.

Euskal Herritik haratago, zein da egitasmo honen egoera?

Espanian 'Wikimujeres' egitasmoa dago. Horren aurretik, 2014an, Hego Amerikan antzeko proiektu gehiago sortu zen. Denok elkarregaz, gizonen eta emakumeen edukien artean wikipedian dagoen arrakala murriztea dugu helburu.

Wikipediako euskarazko ekoizpen osotik zenbat da emakumei buruzkoa?

Euskarazko ekoizpen osoaren %26,9 da emakumei buruzkoa. Zerrenda honetako lehenengo tokiak Asturiasko hizkuntzari dagokio, %42gaz, eta ondoren euskara dator. Gaztelaniari dago-

kionez, sarrera guztien %23,3 da emakumeena. Beste bat aipatzearen, katalanaren portzentaia %20,7 da.

Datu horiek erakusten dute euskara zerrendaren goiko aldean dagoela, baina wikipedian gizonen eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko oraindino egiteko asko dagoela ere bistaraten dute.

Bai, lan handia geratzen da. Eta ez emakumeen biografien inguruan bakarrik, baita ekonomian, politikan eta bestelako esparruetan emakumeek egiten duten lana bistaratzeari dagokionez ere.

Emakumeen gaineko biografiak egiterakoan, zelan bilatzen duzue informazioa?

Guretzat oso garrantzitsua da komunikabideek emakumeen gaineko istorioak lantzea, gure informazio iturri direlako. Edo erakundeek euren herrietako emakumei buruzko ikerketak finantzatzea, ikerketa horiek beste informazio iturri inportante bat direlako. Azkenean, lan kolaboratibo bat da.

Espaniako Wikimedia erakundeko presidenteordea zara. Zelako esperientzia izan da orain arte?

Jende asko eta munduko esperientzia desberdinak ezagutu ditut. Nire ikusmira handitzeko ere balio izan dit. Ni emakumeen biografiak egiten hasi nintzen eta arlo horretan dagoen arrakala garran-



Mentxu Ramilok herriz herri dauden taldeentzako trebakuntza saioak ematen ditu.

tzitsua dela eta berau ixteko lan egin behar dugula iruditzen zait, baina Wikimediako batzordean nagoenetik beste arrakala batzuk deskubritu ditut. Esaterako, hizkuntzen arteko arrakala. Orain dela urtebetetik hona, Extremadurako hizkuntzan idazten duen komunitate txikiari laguntzeko ahalegin berezia egiten gabiltza; jende berria batu dadin eta hiz-

kuntza horretako eduki kopuruak gora egin dezan. Eta oraingoz lana bere fruituak ematen ari da.

Zein beste arrakala identifikatu duzu?

Oso garrantzitsua iruditzen zaidan beste arrakala bat landa eremuari dagokio. Baserrirako eremuko artikulua gutxi dago hiriekin eta beste eremu mota batzuekin alderatuta. Esaterako, Araban proiektu

bat hasi dugu gabezia horri aurre egiten ahalegintzeko. Herririk herri jende berria bilatzea da gure helburua, euren herriko edukia sortuko duena. Herri batzuei buruz wikipedian dagoen edukia hiru-lau esalditara mugatzen da eta euren ondarea, historia, natura, jaiak... wikipedian egotea garrantzitsua dela uste dugu. Lan hori egiten ere bagabiltza.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

azaroak
25

AZAROAK 21

Zornotza Aretoa | 20:00 Zinekluba "Creatura" de Elena Martín Gimeno

AZAROAK 23

Zelaieta | 18:00 Hitzaldia: "Nola Hitz egin gure seme-alabekin sexualitateari buruz" **Oharra:** Aldez aurretik izena eman gabe

AZAROAK 24

Ludotekan, arratsaldean Emakumeen Indarkeriaren kontrako Murala eta Emakumeen Memory jolasa

Gazte Txoko+ Imanen tailerra (txapak)

AZAROAK 25

Herriko Plaza | 12:00 Erakunde adierazpena

Zornotza Aretoa | 20:00 "11 emakume 11 istorio", Amorebieta-Etxanoko emakumei buruzko dokumentala

Liburutegian Ipuin kontalaria, Mireia Delgado, "Nire izena, zure izena, gure izena. Nire ahotsa, zure ahotsa, gure ahotsa"

Oharra: Izena Gazte Informazio Bulegoan eman behar da.

Gazte Txoko + Gauero Indarkeriaren kontrako eskulana. Emakumeen Memory jolasa



Informazio gehiagorako
berdintasuna@amorebieta.eus edo 946 300 002 zenbakira deitu.

OHARRA: Udalak babestu egiten ditu elkarte feministek deituko dituzten manifestazio eta ekintza guztiak, eta hauetara joateko gonbita egiten du.



Kinkfolk

JAZZ BLUES JAIALDIA ELORRIO :: Azaroak 17

Ateneoan, 20:00etan



Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Azaroaren 17an

ABADIÑO antzerkia

'Loa loa, laguna' (Maidar Lasa Santamariaren konpainia), 20:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia

'Papyrus' (Xirriquituela Teatre), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO ipuinak

Amaia Egíazu ipuin kontalaria, 17:00etan, Otamotzena auzogunean.

DURANGO musika

Durang[h]ots Jam Session, 21:00etan, Plateruena kultur aterpean. Iker Hernandez Quintet.

DURANGO ahozketasuna

'De idas de vueltas' (Momi Ogalla), 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan. 'Bideak Gurutzatuz. Gure komunitatea osotzen duten migrazio arloko bizi istorioak' jardunaldien barruan.

ELORRIO erakusketa

'Mendia emakumetasunetik' argazki erakusketa, Iturri kultur etxean. Erdellaren Mendi Astea.

IURRETA musika

Elkano Browning Cream taldea, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Musikaldia kultur egitaraua.

ZORNOTZA antzerkia

'Mierda de ciudad' (Olatz Gorrotxategiren konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 18an

ABADIÑO antzerkia

'Politicamente incorrecto' (Kilkarrak konpainia), 19:00etan, Errota kultur etxean. Antzerkiño kultur egitaraua.

ABADIÑO musika

Abadiño DJ Eguna: Dj Kuku, Dj Kool, Dj Gartzia, Dj Njo eta Dj Inshore, 19:00etan, Isioturen lokalean.

BERRIZ ipuin kontalaria

Ipuin txokoa: 'Kontu kontu kantaldia' (Itziar Saenz de Ojer), 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ musika

V. BHCK Fest, 18:00etan, Hiltegitxe gaztetxean.

BERRIZ dantza

'Lasala: 10. urteurrena' (Lasala konpainia), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika

Sant Adreu Jazz Band eta Élia Bastida, 19:00etan, San Agustin kulturugunean. XXXIV. Musika Hamabostaldia.

ELORRIO musika

South 61 taldea, 22:00etan,

Ateneoan. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

Azaroaren 19an

ABADIÑO eskola

Abadiño II. Esku Pilota Txapelketa Herrikoia, 17:00etan, Zelaietako frontoian.

ELORRIO antzerkia

'Papyrus' (Xirriquituela Teatre), 17:00etan, Arriolan.

ELORRIO musika

Erromintxelak taldea, 20:00etan, Portalekuan. Arriolako XXXIV. Jazz Blues Jaialdia.

ZALDIBAR ikus-entzunezkoa

'Gure historiako pasarteak. 1990-2018' argazki proiektioa (Ander Gillenea), 18:00etan, Liburutegi zaharrear.

ZORNOTZA jolasak

Mahai jokoak, 18:00etan, Besue elkartearen lokalean.

Azaroaren 20an

IURRETA berbaldia

'Kulturarteko ikuspegia emakumeekiko. Pertsona migratuekiko harremanak', 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Biltzen, Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuaren eskutik.

Azaroaren 20ra bitartean

IURRETA erakusketa

'Bizkaiari begira. Artearen ibilbidea' erakusketa ibiltaria, Askondon.

Azaroaren 22an

ABADIÑO ipuinak

Maidar Alcelay ipuin kontalaria (4-8 urte), 17:00etan, Udal Mediatekan.

DURANGO hitzaldia

'Fases de inmigración de Durango: constantes y diferencias' (Hizlaria: Xabier Aierdi soziologoa), 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan. 'Bideak Gurutzatuz. Gure komunitatea osotzen duten migrazio arloko bizi istorioak' jardunaldien barruan.

Azaroaren 23an

DURANGO zineforuma

'Aita Mari' filma, 18:30ean, Elkartegian. Ondorengo solasaldian, Javi Julio zuzendariak parte hartuko du. 'Bideak Gurutzatuz. Gure komunitatea osotzen duten migrazio arloko bizi istorioak' jardunaldien barruan.

ZORNOTZA musika

Anonyme Popular, 20:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

ZORNOTZA musika

Santa Zezilia kontzertua: Zubiaur musika eskolako ikasle eta irakasleak, 19:00etan, Zornota Aretoan.

Azaroaren 24an

ABADIÑO bertsoak

Bertso afaria Miren Amuriza eta Sebastian Lizasorekin, 21:00etan, Mendiolako Errekatxo elkartearen (680 116 710).

DURANGO magia

'Medieval Magic Show' ikuskizuna (Oliver eta Liuba magoak), 17:00etan, Otamotzena auzogunean.

DURANGO musika

Judith Jauregi, 20:00etan, San Agustin kulturugunean. XXXIV. Musika Hamabostaldia.

ELORRIO antzerkia

'Mierda de ciudad' (Olatz Gorrotxategiren konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak

'Marixiki', Pello Añorga ipuin kontalariaren eskutik, 17:00etan, bibliotekan (3-5 urte); 17:45ean (sei urtetik gora).

IURRETA narrazioa

'Emakumeak maite zituzten herria' (Maite Franko) helduentzako ipuin kontaketa, 19:00etan, bibliotekan.

ZORNOTZA dantza

'Shine' (Lasala konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroan

DURANGO erakusketa

'Papera ardatz' (Agustin Ibarrola), Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• *Vidas pasadas*
barikua 17: 19:30
domeka 19: 19:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• *Los juegos del hambre. Balada de pájaros cantores y serpientes*
barikua 17: 19:00 / 20:30
zapatua 18: 17:00 / 20:30
domeka 19: 17:00 / 19:30
astelehena 20: 19:00
martitzena 21: 19:00
eguaztena 22: 19:00

• *Solo queda la danza*
barikua 17: 20:30
zapatua 18: 18:00 / 21:00
domeka 19: 18:00
astelehena 20: 18:00 / 20:15
martitzena 21: 18:00 / 20:15

• *La ermita*
barikua 17: 18:30
zapatua 18: 20:30
domeka 19: 20:15
astelehena 20: 20:15
martitzena 21: 18:00

• *El maestro que prometió el mar*
barikua 17: 18:30
zapatua 18: 19:00
domeka 19: 20:15
astelehena 20: 18:00
martitzena 21: 20:15
eguaztena 22: 19:00

• *El nuevo dinosaurio de Nobita*
zapatua 18: 16:30
domeka 19: 17:00

• *Climax*
eguaztena 22: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• *Karnawal*
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• *Los asesinos de la luna*
zapatua 18: 20:00
astelehena 20: 20:15

• *Boo Kwai eta museoaren lapurreta*
zapatua 18: 17:00

• *Creatura (JBGA)*
martitzena 21: 20:15

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

*Ohiko saltokietan
salgai*

2024

Durangaldeko egutegia

- ABADIÑO** Petite
Abadiñoako estankoa
- ATXONDO** Kiosko Atxondo
- BERRIZ** Egunon okindegia
- DURANGO** Etxebarria prentsa denda
Hitz Liburudenda
- ELORRIO** Tximeleta gozoki denda
- GARAI** Herriko taberna
- IURRETA** Iurreta kopistegia
- IZURTZA** Herriko taberna
- MAÑARIA** Herriko taberna Talka
- MALLABIA** Herriko taberna
- OTXANDIO** Korostondo janari denda
- ZALDIBAR** Imendia prentsa denda
- ZORNOTZA** Ayerdi prentsa denda



Bixente Kapanaga, 9 · IURRETA
Tel.: 946 816 558 · anboto@anboto.org · www.anboto.org



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

"Ikasle batek galdetu zidan: 'Eta hori hemen gertatu da?'; asko, ez gazteak bakarrik, ez dira kontziente hemen gertatu denaz"

Ander Gilleneak Euskal Herriko gatazka oinarri duen argazki proiektioa egingo du domekan Zaldibarren; 18:00etan izango da, liburutegi zaharrean



Proiektatuko den argazkietako bat: Mikel Zabala heriotzaren 30. urteurreneko omenaldia Garrantza (Nafarroa), 2015eko azaroaren 21ean. ANDER GILLENEA

ARGAZKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

'Gure historiako pasarteak' proiektuan, Ander Gillenea argazkilari donostiarrak hiru hamarkadako gatazka kontatzen du 300 argazkitan. "Gatazka aurretik zetorren, eta ondoren ere jarraitzen du, baina azken 30 urteetako historia grafikoa ikus daiteke bertan", azaldu du Ander Gillenea argazkilari donostiarrak. 1990ean hasi, eta ETaren jardun armatua amaitu arteko

garaia erakusten dute argazkiek. Hezurdura aukeratuta izan arren, bere bilduman arakatu eta doan herrian inguruetako argazkiak txertatzen ahalegintzen da Gillenea. "Garai hartako egunkarietan ikusten zena ikusiko da; 90eko zuri beltzeko argazkiekin hasi eta kolorezkoekin amaituko dugu. Kronologikoki egiten dut proiektioa, eta bertan atentatuak ikusten dira, etakideen hiletak...

Lana horrela egokitu zitzaidan eta hori erakusten da. Adibidez, Gipuzkoako gobernadore zibila izan zen Juan Mari Jauregi kideen hiletetan agertzen da, eta gero bere hil kapera ere agertzen da. Garaiak zelan aldatu diren ere antzeman daiteke, janzkeran eta kaleetan, adibidez. Bertakoek pertsona eza-gunak ere ikusiko dituzte, eta bakoitzarentzat arrazoi bategaitik edo beste bategaitik izan daiteke

interesgarria", gehitu du argazkilariak. Proiektioa 18:00etan izango da, liburutegi zaharrean. Kontaketa kronologikoa izateak berezi egiten duela azpimarratu gura izan du donostiarrak. "Esango nuke ez dagoela beste aukerarik azken hogeita hamar urteotako gertakariak kronologikoki eta jarraian horrela ikusteko. Gustatuko zaizu edo ez, hau da nik daukadana. Eta alde guztiak ikusten dira hemen". Gillenea

berak emaniko azalpen txiki batez proiektatuko dira argazkiak. "Gustatu zein ez, gure herriaren historia agertzen da argazkietan, baina askok ez dute ezagutu ere egiten", adierazi du argazkilariak. Gillenea eskoletan ere egin izan ditu proiektio hauek. "Eztandak, atxiloketak, hildakoak... askorentzat zientzia-fikzioa dira argazkiak. Ikasle batek galdetu zidan behin: 'Eta hori hemen gertatu da?'; asko, eta ez gazteak bakarrik, ez dira kontziente hemen gertatu denaz", sakondu du.

300 argazki osatzen dute proiektioa, eta aukeraketa doan herrira egokitzen ahalegintzen da Gillenea

Kuriositateak ere

Ander Gillenea Bostok Photoko kidea da gaur egun, eta hiru hamarkada baino gehiago daramatza argazkigintzan. Proiektioak argazki "gogorak" direla onartu arren, bilduman deneriko argazkiak dituela azaldu du, eta proiektioan bitxiagoak edo alaiagoak direnak ere badaudela. "Lasa eta Zabala garaikoak daude, eta Miguel Angel Blanco zinegotziaren atentatuko argazki potentea, 1997koa. Presoen aldeko mobilizazioetakoak ere badira, eta manifestazioetakoak eta liskarretakoak. Giraldillaren ekintzakoa ere badago, adibidez", argitu du Gillenea.

Haize-arrosa talde berriztarrak 'Ez dogu zor ezer' diskoa aurkeztu du; Baga Biga diskoetxeagaz kaleratu dute

MUSIKA • A. M.

Ene Badaren errautsetatik jaio da Haize-arrosa boskote berriztarrak. Aste honetan, *Ez dogu zor ezer* diskoa kaleratu dute Baga Biga diskoetxeagaz. Pop eta trikitixa doinuak uzartu, eta bestelako soinu eta erritmo batzuetara bidaiatu dute orain Eneritz Gorritxategi, Edurtzeta Ania, Markos Murillo, David Vallejo eta Peio Agirre musikariek; Ene Badaz gainera, Alerta, Storm, Kherau eta MPB taldeetan ariturikoak dira,

besteak beste. Orain, baina, *country*, *irish folk*, *world fusion*, *mex* eta *ambient* doinueta hurbiltzeko baliatu dute abagunea. "Trikiaren soinuak markatu egiten du melodien zeruertza, hurbildutakoan beste zeruertza aurkituz. Ahotsen arteko jokoak, gitarren indarrak, baxuaren txertaketa biribila bateriaz. Gai pertsonalak kolektibizatu dituzte feminismoaren ikuspegitik. Bai, hausnarketa zintzo baten birtartez, emakumea goraiatu gura

du Haize-Arrosa taldeak", azaldu du Baga Bigako Ritxi Aizpuruk.

Debuteko lana Berrizko Lorentzo Records estudioan grabatu dute, Aitor Ariñogaz; irailean egin zituzten grabazio lanak. Letretan, hainbat kideren laguntza izan dute berriztarrek, besteak beste, Miren Amuriza, Onintza Enbeita, Eneko Abasolo 'Abarkas', Unai Iturriaga eta Miren Agur Meaberena. Orain, lana zuzenean aurkezteko gogo dute.



Haize-arrosa.



Xabat Gallebeitia eta Aitor Etxebarrizarraga kantuan Berrizko saioan, joan zen zapatuan.

Altube anaiak eta Aitor Bizkarra Bilboko finalerako txartelaren bila

Zapatuan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa jokatu da, Santurtzin

BERTSOLARITZA • A.M.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa azken txanpan da dagoeneko. Zapatuan, hilak 18, bigarren finalaurrekoa jokatu da, Santurtzin, Serantes kultur aretoan, 17:00etan. Hiru abadiñarrek kantatuko dute bertan: Txaber eta Bittor Altube anaiak eta Aitor Bizkarrak. Euren batera, Jone Uriak, Mikel Goirienak eta Unai Mendiburuk osatuko dute saioa seikotea. Irabazlea zuzenean sailkatuko da finalera, eta gainerakoek puntuazioaren arabera izango dute horre-

tarako aukera. Gai jartzaile beharretan Igor Menika arituko da.

Bilboko finalerako (abendua 16) lehenengo sailkatua Xabat Gallebeitia lekeitiarra da. Berak batu zuen punturik gehien lehenengo finalaurrekoan, Berrizko Olakueta frontoian: 616,5. Gorka Pagonabarraga bertsolari durangarrak egin zuen bigarren, 604 puntu eskuratuta. Orain urte biko txapelketako puntuazioari errepertuz gero, duen puntuazioagaz badu aukera finalean sartzeko, baina beste finalerdi bietako pun-

tuazioari itxaron beharko dio hori jakiteko. Berrizko finalerdian Aitor Etxebarrizarragak egin zuen hirugarren, Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak laugarren, Koldo Gezuragak bosgarren, eta Iruri Altzerreka garaitarrak seigarren. Itxaro Juaristi aritu zen gai-jartzaile. 550 bat bertsozale batu ziren Berrizen.

Saio guztietarako sarrerak *bertsosarrerak.eus* atarian daude salgai, eta oraindino sarrerarik balego saioaren egunean, txarteldegian bertan salduko liriteke.

Dark Tranquillity eta Metallium, Koba Live jaialdian

Ekainaren 21ean eta 22an izango da Koba Live jaialdiaren edizio berria; sarrerak salgai daude, 30 euroan

MUSIKA • A.M.

Koba Live jaialdia antolatzen duten Sugaar musika elkarte eta Abadiñoko Udala gogotsu daude hirugarren ediziorako. Izan ere, edizio berrirako nazioarteko talde bi iragarri dituzte: Dark Tranquillity suediarra eta Metallium alemaniarra. Dark Tranquillity 1989an sortu zuten, eta *death metal* doinuak jorrotzen dituzte; *Goteborg* soinua deritzonaren aitzindarietariko bat dira. Euren hamabigarren lana izango dena konposatzen dabilta une honetan. Metallium taldea alemana da eta 1999an grabatu zuten euren lehenengo lana. 2011tik taldea erretiratuta egon da eta itzulera birako kontzertuetariko bat izan-

go da Abadiñokoa. 2024ko ekainaren 21ean eta 22an izango da Koba Live jaialdiaren hirugarren edizioa. Sarrerak salgai daude, 30 euroan.

Dark Tranquillity 1989an sortu zuten, eta death metal doinuak jorrotzen dituzte

Iazko edizioan, jaialdiak 2.500 lagun batu zituen, eta, besteak beste, Primal Fear, Angelus Apatrida eta El Altar del Holocausto taldeek eman zuten kontzertua.



Dark Tranquillity.

Gai librean

Minimalismo digitala

Ordenagailuko saguaren patentea — Irulegiko eskuarena ez bezala— duela 53 urteko irailaren 17an aintzatetsi zuten. Mende erdira, plastikozko arratoiaren gorpila ia ordezkatu du atzamarra, egunero erritual bera: hatz erakuslea pantailan gora eta behera, ohartzeko komuneko eserialdia ordu laurdenetik gora, eta aztarna biometrikoen kontura ez kezkatzeraino hipnotizatu gara.

Beste peaje bat, bidesariz betetako eguneroko digitalean. Ezinezkoa da honezkero sarera konektatzen garen aldiro norbere datuekin negozioa egin nahi duen bilauren bat parean ez aurkitzea. Ezinezkoa da, kontrakoa posible bihurtzeko ariketa diseinatzen eta esperimenduak praktikan jartzen hasi arte behinik behin.



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Mende erdira, plastikozko arratoiaren gorpila ia ordezkatu du atzamarra, egunero erritual bera

Horiek etengabe eta nahieran eskura izan baino, denbora tarte eta espazio konkretu batzuetara mugatzeko ariketa proba daiteke

Erbibidean ere bada nondik hasi. Erabiltzaileok —hau da, zu eta ni bezalako jende arruntak— haien atarrietan nabigatzen ahalik eta denbora

gehien igarotzeko garatu diren aplikazioak blokeatu ditzakegu: sare sozial guztiak itzali, berdin Netflix, HBO edo Amazon, jokoak, apustu digitalak zein pornografia atariak.

Kontua ez da akaso Whatsapp desinstalatu eta profila ezabatzea. Horiek etengabe eta nahieran eskura izan baino, denbora tarte eta espazio konkretu batzuetara mugatzeko ariketa proba genezake. Arreta (eta datuak) nori eta noiz eman geuk erabakitzea. Jakinarazpen leihoak irekitzeko tarteak agendan markatzea; egunero kirola egitea aukeratzen dugun determinazio eta diziplina berarekin, adibidez.

Hara minimalismo digitala. Autolauntza kiratsa darion kontzeptua izan daiteke, baina autozaintzarena ere baden bide kolektibo baten hasiera izan liteke. Maximalismo logikoa.

“Taldean gaudenok irrikan geunden lehiatzeko eta eskubaloia erregulartasun bategaz bizitzeko”

Bere sasoiaren nazional mailako eskubaloi jokalaria izandako Eli Bolinaga talde berriko entrenatzailea da



ELISABETH BOLINAGA IRAZUEGI

Elorrio, 1979

Elisabeth Bolinaga goi mailako eskubaloi jokalaria izandakoa da. Urte batzuetan Espainiako nazional mailan jokatu zuen, Basauriko talde bategaz. 29 bat urte hartu zuen erretiroa, belauneko lesio bategatik. Orain, 15 urte geroago, Elorrio Txantxibiri klub berriko jokalaria eta entrenatzailea da.

Zelakoa izan da itzulera?

Gogo handia nuen eskubaloiari jokatzen. Baina ez nik bakarrik. Taldean gaudenok irrikan geunden lehiatzeko eta eskubaloia erregulartasun batez bizitzeko, eta ez noizerik noizera lagunarteko partidua jokatu, urtean behin edo. Eskubaloia asko gustatzen zaigu; horregaitik ibili ginen bere sasoiaren eta horregaitik gabilza orain.

Jokalaria askoren seme-alabek eskubaloiari jokatzen dute. Zureak ere bai?

Bai. Durangon bizi naiz eta semeak Jesuitak ikastetxeko haur kategoriako taldean jokatzen du. 13 urte ditu. Ez zegoen mutilen talderik eta senarrak eta

biok talde bat ateratzea lortu genuen. Oso ondo dabilta, gainera. Sei jokalarik Bizkaiko selekzioagaz jokatu dute eta eurentariko bik Euskadiko selekzioagaz ere bai.

Itzuleran, zer da gehien kostatu zaizuna? Dinamikak eta teknika berreskuratzea ala alderdi fisikoa? Nire kasuan, alderdi fisikoa gehiago kostatu zait. Argaltzen nabil, baina, hala ere, kostatu egiten da. Teknikari dagokionez, entrenamenduak behar dira sasoi bateko erreflexuak lortzeko, baina barruan darmauzun zerbait da eta gutxiago kostatzen zait.

Zelan daramazu entrenatzaile lana?

Bere sasoiaren belauneko lesio bategatik erretiratu nintzen eta beldur nintzen orain zelan erantzun ote zidan. Beraz, entrenatzaile izatea proposatu zidaten. Kontua da belaunak ondo erantzun zidala eta orain jokalaria eta entrenatzaile naiz, biak. Semearen taldeko delegatua naizenez, badakit oinarriko entrenamenduak antolatzen. Baina ez da zerbait itxia, denok proposatzen ditugu ariketak. Esaterako, joan zen astean penalti asko huts egin genituen eta aste honetan alderdi hori landu dugu batez ere.

Orain arte jokaturiko partiduetan lehiakor aritu zarete.

Bai, ados nago. Nire ustez, oso ondo defendatzen dugu. Erasoan hobetzea falta zaigu. Elkar hobeto ezagutzen joan ahala helduko da hori ere.

Eskubaloiari aritutako jokalariek beteranoak kantxara bueltatu dira Elorrio Txantxibiri klub berriagaz

28tik 46 urtera arteko hogeitabat jokalariek osatzen dute klub berria. Jokalarien hainbat alaba hiru ikastetxek elkarrengaz sorturiko Elorrio Kirol Taldean jokatzen dabilta



Elorrio Txantxibiri Eskubaloi Klubeko jokalarien familia argazkiak.

ESKUBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Eskubaloia biziberritzen ari da Elorrioren, bai nagusietan eta baita umeetan ere. Nagusien berpizkundera jokalariek ohieki zor zaie. Bere sasoiaren eskubaloiari aritutako hainbatek klub berri bat sortu eta kantxetara bueltatzea erabaki dute, bigarren etapa bat hasteko. Maite duten kirolean elkarrengaz gozatzea eta belaunaldi berriak erakartzeko eskubaloia lau haizeetara zabaltzea dute helburu.

Hasierako etapari, Lourdesko ikastetxean eman zituzten lehenengo pausoak. Ostean, Durangon jarraitu zuten lehenengo, eta Elorrio Eskubaloi Taldean ondoren. Talde hura desagertuta dago gaur egun. Batzuek orduan utzi zuten eskubaloia, eta beste batzuek urte gehiago jarraitu zuten, beste talde batzuetan. Orain klub berria sortu dute, Elorrio Txantxibiri Eskubaloi Kluba, bigarren etapari ekiteko. Beteranoen taldea da eta aurreko beteranoen liga jokatzen hasi dira, beste lau taldeagaz batera.

Jokalaririk gazteenak 28 urte dituzte, eta nagusienak 46. Guztira, 20 jokalariek osatzen dute taldea.

Kontua serio hartu dute eta eguazten arratsaldero batzen dira Elorrioko kiroldegian entrenatzeko. Aurretik, lagunartekoak jokatu dituzte Ermuaren eta Durangoko Ibaizabalen kontra,

Orain arte beteranoen ligako partiduetan bi jokalariek dituzte eta bietan oso lehiakor aritu dira

Elorrioren bertan. Ligari begirako prestaketarako ez ezik, beste helburu bat ere bazuten partiduek. "Eskubaloia sustatzea gura genuen, gu jokatzen ikusita behar bada umeak eskubaloia probatzera animatuko zirelakoan", adierazi du taldeko jokalaria den Naiara Ruizek.

Beteranoen liga martxan da. Dagoeneko partidua bi jokatu di-

tuzte. Elorrioko kiroldegian jokatutako estreinako partidua 18-23 galdu zuten, Urdulizen kontra. Urdaibairen aurkakoa, ostera, berdinketaz amaitu zen: 16-16. Gustura daude liga hasieragaz, taldeak "aurpegia eman" duelako partidua bietan eta "oso lehiakor" aritu direlako. Horrez gainera, lehenengo partiduan Elorrioko kiroldegian bizitako giroa azpimarratu du Ruizek: "Harmailak bete egiten ziren".

Seme-alabak, jokalariek

Elorrioren eskubaloiari berpizkundera umei ere zor zaie. Herriko hiru ikastetxek martxan ipiniriko Elorrio Kirol Taldean eskubaloiari aritzeko aukera eskaintzen die umei. Egundak, haur kategoriako talde bat dago, 14 bat umeagaz, eta aurreko LH1 eta LH2 mailako berria sortu dute. Umeetariko batzuk Elorrio Txantxibiri klubeko seme-alabak dira; esaterako, Itxasne, Ruizen 11 urteko alaba. "Oso pozgarria da alaba hainbeste maite duten kirolean aritzea", esan du Ruizek.

Etorkizuneko **Olazar Txapelketa** | Zuzenean **anboto.org**

Azaroaren 23an 21:30ean
ZALDIBARKO OLAZAR PILOTALEKUAN
LAU ETA ERDIAN: U. Amiano-Ibarluzea
BINAKA: Olaetxea-Azpiroz/ Oskoz-Lazkoz

anboto

Wadokan klubak arte martzialen '12 harri' openari jarraipena emango dio

lazko saioagaz gustura geratu ziren eta aurten berriro egitea erabaki dute. Ekimena Landako Kiroldegian izango da



lazko lehenengo edizioako openeko argazkia.

ARTE MARTZIALAK • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Wadokan klubak arte martzialen '12 harri' opena antolatu du zapaturako. Egun osoan zehar iraungo du eta Landako Kiroldegian izango dela azaldu dute antolatzaileek. Estatuko dozena bat klubetara 300 bat ariketa ikusteko aukera egongo da bertan. Openak harrera handia izan zuen iaz, eta, horrexegaitik, aurten ere egitea pentsatu dute. Opena estatuko iparraldean erreferente bihurtzea da klubeko kideen helburua. Open batek diziplina

anitzeko borrokalariak ekimen berean batzeko aukera eskaintzen du: karatea, taekwondo, ninjutsua... "Bere osotasunean, lehiaketa ikusgarria da. Horrelako lehiaketek beste edozeinek baino hobeto islatzen dute Wadokan klubaren filosofia; hau da, arte martzialak errespetuan oinarrituriko garapen pertsonalerako erreminta lez erabiltzea", adierazi dute klubeko kideek ohar batean.

Zapatuko erakustaldien artean, Raul Gutierrez maisu handiak emango duena dago.

Eneko Diez bosgarren jiu-jitsuko munduko txapelketan

Abu Dhabin lehiatu zuen txapelketa, joan zen asteburuan

JIU-JITSUA • J.D.

Eneko Diez durangarrak urtebete emaniko gorakada azpimarratzeko modukoa da. Iaz, urte hasieran, nazioarteko txapelketa batean partu hartu zuen, bere ibilbidean lehenengoz. Europako txapelketa izan zen, Erroman (Italia) lehiatu zena, eta bosgarren postuagaz etorri zen. Aurten gorago ipini du mugarrria. Urri hasieran Madrilen jokaturiko sailkapen proban lorturiko emaitzei eskerrak, joan zen asteburuan

munduko txapelketan parte hartu zuen Arabiar Emirerri Batuetako hiriburuan, Abu Dhabin, eta bosgarren postua eskuratu zuen 85 kiloz azpiko mailan. "Oso pozik nago emaitzagaz eta nire errendimenduagaz. Gainera, nire ibilbidean lagunduko didaten esperientzia aberasgarriak bizi izan ditut", adierazi du 24 urteko durangarrak. Gaur egun Madrilen bizi da Diez, eta Durangaldean dagoenean BSGMatiena gimnasioan entrenatzen da.



Lucas Protasio, Alexandre Nascimento eta Eneko Diez Abu Dhabin.

Leire Garai eta Leire Galeano aurrera, Zornotzan jokaturiko jardunaldian

PILOTA • J.D.

Zornotzako Amorebieta IV pilotalekuak lau eta erdiko Master Cup txapelketako jardunaldia hartu zuen martitzenean. Partidu bi jokatu ziren eta Leire Garai eta Leire Galeano sailkatu ziren final-laurdenetarako. Leire Garai gasteiztarrak erraz hartu zuen mendean Arrate Bergara: 22-7. Hasieran parekatuta ibili arren, partiduak aurrera egin ahala Garaik gaur gaurkoz sasoi hobean dagoela

Gasteizko eta Antzuolako pilotariak Master Cup-eko final-laurdenetarako sailkatu dira

erakutsi zuen. Elite mailako bigarren partiduan, Leire Galeano antzuolarraren eta Andrea Capellan errioxarraren partidua lehiatuagoa izan zen. Azkenean, 22-17 gipuzkoarraren alde. Joko aldetik paretsu aritu ziren, baina Capellani partidua luze egin zitzaion azkenerako.

Gazte mailako partiduan, Onintza Galdos aulestiarrak etorkizun oparoa izan dezakeela berretsi zuen, Jone Merinori 22-5 irabazita.

Jokaldia

Zergatik da xakea kirola?

1985eko otsailaren 9an, Moskun, hainbeste xake txapeldun eman dituen herrialdean, 1984ko Munduko Xake Txapelketako azken partida jokatu zen. Karpov eta Kasparoven arteko match-a izan zen, eztabaida handia sortu zuena eta ospetsu bihurtu zena FIDEko (Nazioarteko Xake Federazioa) presidentek, jokalarien nekea argudiatuz, txapelketa bertan behera uztea erabaki zuelako. Match handia 1984ko irailaren 10ean hasi zen eta 48 partida jokatu ziren. Karpov 10 kilo galdu zituen eta esatariak "hildako ibiltari bat dirudi" esan zuen.

Absurdua dirudi, ordu luzeetan eserita, noizean behin besoa luzatu eta beste ahaleginik egin gabe hainbeste



Gabriel Barranco Devesa
Larrasoloetako xakelaria

Munduko Xake Txapelketan Karpov 10 kilo galdu zituen, eta esatariak 'hildako ibiltari bat dirudi' esan zuen

Absurdua dirudi, ordu luzeetan eserita, xakelari batek hainbeste energia fisiko behar izatea

energia fisiko behar izatea. Robert Sapolskyk, Stanforderko Unibertsitatean primateen estresa aztertzen duen neurologoak, dio xake jokalariei

6.000 kaloria erre ditzakeela txapelketa bat jokatzeko bitartean. Pertsona batek egunean kontsumitzen duen baino hiru aldiz gehiago. Txapelketa handien aurretik, txapelketa jokatu bitartean eta txapelketaren ondoren, arnasaren maiztasuna, presio artetrial eta giharretako uzkurdurak oinarri hartuta, Sapolskyk baieztatu du Xakeko Maisu Handiek (GM) partida batean jasandako estresari emandako erantzunak maratoiko korrikalarien erantzunak bezalakoak direla. Estres horrek, halaber, energia gehiago ekoiztera behartzen ditu jokalariek, gorputzak oxigeno gehiago bidal dezan burmuinera.

Honekin batera, xakean elikadurak duen garrantzia datorkit burura. Gai hori hurrengo batean landuko dugu.



Omenaldia

'Xabier Amuriza, Torreburutik Euskal Herrira kantuz'

Joan zen zapatuan, Xabier Amurizak ondo mereziriko omenaldia jaso zuen bere sorterrian, Etxanon. Auzoko 60 bat bizilagunek Amurizaren bizitza errecreatu zuten antzerki baten bitartez. Ez zuten eguraldia lagun izan eta ibilbidea moldatu behar izan zuten. Gauean, Euskal Herriko musikari eta artista ugariaren laguntzagaz, ikuskizun hunkigarria taularatu zuten Zelaietako frontoian. Ekitaldietara bertaratutakoek argazki zein bideorik izanez gero, amurizaomen@gmail.com helbidera bidaltzea eskatu dute antolatzaileek.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmodurangesado.com
inmodurangesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

ABADIÑO: 88 m²-ko beheko solairua. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde. Bizitzen sartzeko moduan. **135.000 € C.E.E.E**

IURRETA: 117 m². 4 logela eta 2 komun. 150 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua aukeran. **C.E.E=E 220.000 €**

ZALDIBAR: 70 m². 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Inbertsio moduan egokia. **C.E.E=E 105.000 €**

// ALOKAIUAN EROSTEKO AUKERAREKIN

ABADIÑO: 150 m²-ko terraza. Erdi berria. 94 m². Garajea eta trastelekua aukeran. **C.E.E=E 259.000 €**

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA: 85 m². 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukalde jantzia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 198.000 €**

DURANGO: 118 m². 4 logela, 2 komun eta sukalde eskegitokiarekin. Ganbara eta aparkaleku zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 320.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna jakuziarekin, bainugela eta sukalde jantzia. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. **C.E.E=E 180.000 €**

MIKELDI: 85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. **C.E.E=E 226.000 €**

BARRENKALEA: Berriztatutako duplexa. 3 logela eta 2 komun. ganbara ikuspegiarekin. **C.E.E=G 206.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta ganbara. **C.E.E=G 335.000 €**

JUAN DE OLAZARAN: 85 m². Guztiz jantzia. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 382.000 €**

LANDAKO: (autobus geltokia) 102 m². 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. **330.000 € C.E.E=E**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 142.500 €**

MATIENA: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. **C.E.E=G 129.000 €**

OTXANDIO: 80 m². 80 m²-ko beheko solairuak. Txokoa, garajea, biltegia egiteko aukera. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 90.000 €**

//GARAJEAK SALGAI

MENDIZABAL: Garaje itxia. **20.000 €**

JUAN MARI ALTUNA: Garajea. **16.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukalde, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukalde, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatzeko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukalde, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukalde eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politikak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmodurangesado.com

DURANGO 42 m²
2 logela
ZEHARKALEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, komuna eta despentsa. Ezin hobea. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoalde) Erdiguan kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueak.
154.000 € C.E.E: E

DURANGO 72 m²
4 logela
ANTSO ESTEGIZ: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea) Egoera onean. Leku onean kokatua, erdigunetik gertu. Bizitzen sartzeko moduan.
168.000 € C.E.E: E

DURANGO 68,80 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Beheko solairua (33,73 m²). Egongela handia, sukalde jantzia eta balkoia. Lehenengo solairua (25,07 m²), 2 logela, komuna eta balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Oso argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzueak. Egoera onean. Ganbara eta garajea.
275.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 86 m²
3 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: (2012. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Etxe erdiak kanpora ematen du (ipar-hegoa) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueak. 22,4 m²-ko garajea eta 8 m²-ko ganbara. Bizitzen sartzeko moduan.
315.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO 90 m²
3 logela
FAUSTE BEKOA: 2003. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. 55 m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzueak. Ezin hobea. Garajea eta 13,5 m²-ko trastelekua.
319.000 € C.E.E: E

MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.
254.900 €-tik aurrera

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukalde balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **LEHEN 300.000€ ORAIN 280.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua onartuta. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **280.000 €**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

//BERRIAK

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**



Botikak

BARIKUA, 17 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 18 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA,
ABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 19 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 20 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 21 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 22 · 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 23 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZATEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozaturgozategia



Zorionak, potxola. Egun eder bat pasa. Mosu handi bat zure familiaren partez.



Sofiak beste urte bat egin du. Oso handia zara, maitia. Zorionak bihotz-bihotzez zure familiaren partez, asko maite zaitugu. Ondo pasa, nire bihotza. Musu handi bat.



Azaroaren 20an **Unaik** urteak egiten ditu. Matienako terremotoak 3 urte egiten ditu. Zorionak.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 10° / 22° ☁

ASTELEHENA ↓ 9° / 15° ☁

EGUAZTENA ↓ 8° / 12° ☁

DOMEKA ↓ 10° / 20° ☀

MARTITZENA ↓ 8° / 12° ☁

EGUENA ↓ 7° / 12° ☁



ZURE MUGIKORRARI ETEKIN HANDIAGOA ATERATZEN IKASI NAHI DUZU?

Azaroak 28 eta 30
Asteartea eta Osteguna
10,30 - 12,30 Ibarretxe kultur etxean
Izen ematea
Azaroaren 13tik 17ra

Kultur-Etxea@lurreta.eus 946200342



"Bizimodu honek emaniko askapen sentimendua gustatzen zait"

Irati Ircio Durangotik kanpora bizi da azken zortzi urteetan. Erdialdeko Amerika eta Hego-Amerikako hainbat herrialde ezagutu ditu, eta Japonian bizi da azken hiru urteetan

Irati Ircio Alberdi

Artisaua

DURANGO | 1994



DURANGO • AITZIBER BASAURI

Irati Ircio Amerikan eta Asian zehar dabil azken urteotan. Artisautza du lanbide, libre sentiarazten duen ogibidea. Akasha izenpean osagarriak sortzen ditu, makrame teknika erabilia. Ziur dago Euskal Herrira bisitan bueltatuko dela, "denak du bere momentua".

Zerk bultzatuta erabaki zenuen Durangotik irten eta munduan bidaiatzea?

Buenos Airesera joan nintzen hiru hilabetez, unibertsitateko praktikak egitera, eta, amaitzean, Bolivian eta Perun zehar bidaiatu

nuen. Esperientzia itzela izan zen, beste era batera bizitzeko aukera ezagutu nuen. Etxera bueltatu, eta hile bira Costa Ricara joan nintzen. Urte bian Costa Rican bizi ondoren, Nikaraguan, El Salvadorren, Guatemalan, Belizen eta Mexikon ibili nintzen.

Amerikatik Japoniara salto egin zenuen. Aldaketa handia izan zen?

Ameriketatik familia eta lagunak bisitatzera bueltatu nintzen, eta, ondoren, Indiara joan nintzen. Handik Malaysiara, Thailandiara, Kanbodiara... Oso urrun ikusten

nuen Japoniara heltzea. Amets bat zen niretzat, orain bizitzen nabilen ametsa. Askotan, ingurura begiratu eta Doraemonen etxean nagoela sentitzen dut (barrez). Denborarik gehien mendialdean eman dut, eta udazkeneko koloreak izugarriak dira hemen.

Artisautzagaz hasi zinen Costa Rican.

Hala da. Orain sei urte makrameagaz hasi nintzen, eta ordutik nire ogibidea da. Gura dudana tokian lan egin ahal izateak, egun bakoitza berria izateak, oso libre sentiarazten nau; eta, oraingoan, ez dut

ezer gaitik ere aldatzen hau. Oraina bizitzea eta mundua esploratzea, horixe da Akasharen oinarria.

Zerk inspiratzen zaitu sormen larnerako?

Naturan murgilduta sortzea maite dut: mendian, hondartzan, errekan... Edozein herrialde edo lekutan, baina beti naturaz inguratuta. Beti gustatu izan zait eskumuturrekoak egitea, eta ogibide bihurtzea posible zela ikustean egunero egiten hasi nintzen. Praktika eta diziplina lana da, orduak eta orduak korapiloka.

Filipinetara joatekoa zara orain. Bereziki erakartzen zaitu?

Toki askok erakartzen naute; gehienetan ez dut planik egiten hona edo hara joateko. Interneten hurbileko herrialdeetara dauden hegaldiak begiratzen ditut, merkeenaren bila. Japoniatik nahiko hurbil daude

Gura dudana tokian lan egin ahal izateak, egun bakoitza berria izateak, oso libre sentiarazten nau; oraingoan, ez dut ezer gaitik ere aldatzen hau

Filipinak, eta horregaitik pentsatu dut hara joatea. Eta hango hondartzengaitik ere bai, jakina!

Nomadatzat duzu zeure burua?

Bizitzako momentu honetan, bai. Oraingoan, horrela bizi gura dut, munduan neure leku berezia topatu arte. Bizimodu honek emaniko askapen sentimendua gustatzen zait gehien. Toki bakoitzean luza-roagoan egoteko aukera dut eta bertako jendeaz partekaturiko esperientzia gertukoagoa da.

Inoiz joan gura zenukeen leku hori...

Hainbeste leku bisitatu gura ditut! Baina Kazakhstan, Uzbekistan, Kirgizistan... Kuriostitatea dut munduko alde hori esploratzeko.

Etorkizunean zeure burua nonbait errotuta ikusten duzu?

Bai. Leku berezi hori topatu eta arte espazio bat sortzea dut helburu, bizimodu berdina konpartitzen duen jendearentzako komunitate bat. Batek daki non, baina leku hori aurkitu arte herrialde gehiago bisitatzeko falta zait.

Lau-hortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Sorioneku

Asteon, 'Irulegiko eskua' dalako aurkinkuntza gertatu zantetik, urtebete pasatu da. Brontzezko pieza horretan inskribatutako berbek, orain dala bi mila urte euskara izan bazala adierazten dabe. Ikerlariak esku horretan inskribatutako beste hitzen gainean argia jartzen dabilz, baina gauza bat argi dago: euskara bazan, euskaraz idatzi, bizi eta egiten ebelako zan. Eta horrexegaitik, gaur ere bada. Sorioneku-ak gu!

Irulegiko herrixkan, eskuz eta esku baten itzi deuskue gure hizkuntzaren idatzizko lehen aurrekaria. Digitalizazioaren garaian, eskuz idaztea ez da hain ohikoa; mugikorrean, ordenagailuan eta, laster, gure ahotsa testu bihurtzen dauzan gailuek ordezkatu dabe eskua. Baina euskaraz egiten jarraitu geinke, formatu, euskarri eta teknika desbardinekaz, aro digitalera egokitua, zelan ez, baina hari bordinari jarraipena emonez, euskarari.

Hezkuntzan ere, antzera gertatzen jaku. Sorioneku-ak gara ikastolen sare zabala daukagulako euskararen lurralde guztietan. Garai bateko gurasoek, eskutik helduta, alkarregaz sortu ebezan ikastolak. Gaur eguneraino, beste guraso batzuei eskuordetu deutse ikastolen gidaritzan, hari bordinari jarraipena emonez. Herrigintzaren haria da hori. Euskal Hezkuntza Sistemak marko juridiko barria behar dau, garai barrietara moldatzeko, baina hari bordinari heldu eta eutsiz. Eskutik eskura, belaunaldiz belaunaldi, eutsi deusagu euskarari. Eskutik esku, eraiki dogu gure Hezkuntza sistema propioa. Garai barrietarako eraldatuz, eskulanean, izango gara Herri.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa